

**Ikasmaterial honek Hezkuntza  
Sailaren Onespena du. 2025-01-14**

# PERFUMEGINTZA ETA KOSMETIKA NATURALA



Maria Eugenia Apalategi Valero  
LANBIDE HEZIKETAKO ESTETIKA ETA  
EDERGINTZA  
2. MAILA



# PERFUMEGINTZA ETA KOSMETIKA NATURALA

## Aurkibidea

JUSTIFIKAZIOA .....	4
TEORIA .....	5
1. PERFUMEA .....	5
1.1. Perfumearen eta perfumegintzaren historia .....	5
1.2. Perfumeak, lurrinak edo usain gozoak .....	7
1.2.1. Osagaiak eta egitura kosmetikoa .....	7
1.2.2. Notak .....	8
1.2.3. Printzipio aktiboak edo lehengaiak .....	10
1.2.4. Eszipienteak .....	13
1.3. Perfume bat sortzea .....	13
1.3.1. Akordeak .....	14
1.3.2. Konposizioaren ezaugarriak .....	15
1.4. Perfume-mota edo perfume-formen sailkapena .....	15
1.4.1. Esentzia- eta alkohol-kontzentrazioaren arabera .....	16
1.4.2. Usain-familiaren arabera .....	17
1.4.3. Norentzat diseinatzen diren kontuan izanda .....	18
2. PERFUMEGINTZAKO PRODUKTUAK .....	20
2.1. Perfume bat aukeratzeko ikastea eta usaimena hezteko .....	21
2.1.1. Probatzea eta aukeratzeko .....	21
2.1.2. Erosteko gomendioak .....	22
2.1.3. Erakargarria edo gogaikarria izateko norbaitentzat .....	23
2.2. Perfume bat pertsona bati egokitzea .....	23
2.2.1. Hautaketan eragina duten faktoreak .....	24
2.3. Perfumea aplikatzea, eta kontuan hartu beharreko neurri batzuk .....	31
2.4. Perfumea zaintzea eta kontserbatzea .....	32
2.4.1. Ontziaren garrantzia .....	32
2.5. Perfumea, moda eta irudi pertsonaleko profesionalak .....	33

3. AROMATERAPIA ETA AROMA-KOSMETIKA .....	34
3.1. Aromaterapia .....	35
3.1.1. Usain-molekulak eta nerbio-sistema .....	36
3.1.2. Usain-molekulen erabilera tratamendu-kabinan .....	36
3.2. Esentzia-olioak .....	37
3.2.1. Propietateak .....	37
3.2.2. Olio-eramaileak .....	38
3.2.3. Nola erabili .....	38
3.2.4. Neurriak eta kontraindikazioak .....	39
3.3. Aroma-kosmetika .....	39
3.3.1. Nola erabili .....	40
3.3.2. Esentzia-olioen bidez pertsonalizatutako kosmetika .....	40
LABORATEGIA .....	45
1. LAN-TRESNAK ETA ANTOLAKUNTZA .....	45
1.1. Perfumegintzako laborategiko lantokiaren antolakuntza eta segurtasun-arauak.....	45
1.2. Perfumeak egiteko laborategiko materiala .....	48
1.3. Esentzien eta lehengaien hautaketa.....	50
1.4. Aurretik egin beharreko lanak. Bolumena eta pisua kalkulatzeko .....	51
1.5. Esentzia-olioa lortzeko prozesuak.....	53
2. PERFUME ETA KOSMETIKO NATURALAK SORTZEKO FORMULAK .....	56
2.1. Perfumeak sortzea .....	56
2.2. Perfumegintzako formulak.....	58
2.3. Kosmetika naturaleko formulak .....	74
2.4. Emaitzak nola aztertu.....	88
2.5. Perfumeekin egiteko praktika: usaintzen ikastea .....	89
BIBLIOGRAFIA .....	92

## Justifikazioa

Lan hau Lanbide Heziketako Erdi Mailako Estetika eta Edergintzako 2. mailako Perfumegintza eta kosmetika naturala ikasgairako egokituta dagoen liburu baten itzulpena eta egokitzapena da.

Bestalde, testuak gure erara moldatu, eta guk erabiltzen ditugun ariketekin osatu ditugu. Hizkuntza-mailari dagokionez eta gure ikasleak kontuan hartuta, testu ulerterraza idazten ahalegindu naiz.

Erreferentzia moduan hartu dudana liburua Editorial Videocincoren *Perfumería y Cosmética Natural* liburua da, IVAC \_ EEI Lanbide Heziketaren Euskal Institutuaren DCB edo Diseño Curricular Baseko (2013/05/03) argibideei jarraitzen dielako.

Liburuak bi atal ditu, ikasgaiak bezala. Batetik, teoriako sei gai eta, bestetik, laborategiko bi. Lan honetan teoriako hiru gai eta laborategiko bi gaiak itzuli, eta moldatu ditugu.

Guk liburuaren antolaketa berari jarraitu diogu, bi hizkuntza-ereduetako ikasleek material bera izan dezaten.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet Iraleko Andrea Lizeagari eta Idoia Iberori, eta Lanekiko Olatz Imazi lan hau posible egiteagatik.

# Teoria

## 1. PERFUMEA

Lurrina edo perfumea aztertzeak nolabaiteko abstrakzio-maila eskatzen du, ukigarria denetik edo materiatic, esentzietatik, usainetara iritsi behar baita.

Materia kontrolatu, neur eta pisa daitekeenez, haren parametro fisikoak eta kimikoak ezagutzen dira. Usaina sentipen ukiezina da, ez da kuantifikatzen, sentitu besterik ez da egiten.

Pentsa daiteke ez dela ezer gertatzen usaimenik gabe bizitzeagatik, baina zaila da imajinatzea bizitza, ezin izango bagenu usaindu gas-isuri bat edo egoera txarrean dagoen elikagai bat. Gizakia 10.000 usain baino gehiago detektatzeko gai da. Baina, gainera, usaimena hezi egin daiteke, perfumegileek edo sommelierrek egiten duten bezala. Horiek usaimen-diskriminazio handia izateko gai dira.

Oraindik usaimenaren zentzua asko azertu behar da. Haren ezaugarrien inguruan laborategiak eta ikertzaileak lanean ari dira, egunero aukera berriak aurkitzen saiatuz. Gai honetan, lurrinen mundu konplexuan sartzeko datu batzuk emango dira.

### 1.1. PERFUMEAREN ETA PERFUMEGINTZAREN HISTORIA

Perfumearen historia gizakiaren historiaren parte da. Egiptoko apaizek olioekin, ardoarekin, eztiarekin, esentziekin eta erretxinekin ekoizten zituzten prestakin lurrinduak. Beren burua garbitzeko eta beren jainkoak ohoratzeko erabiltzen zituzten. Greziarrek eta erromatarrek perfumegintzaren artea perfektionatu zuten, eta substantzia aromatikoak inportatzen hasi ziren Indiatik; gero, merkatuetan saltzen zituzten lurrinak prestatzeko.

Erdi Aroan, kristautasunaren ohituren eta gorputzarekiko arbuioaren ondorioz, lurrinaren erabilera epidemiei aurre egitera eta desinfektatzaile gisa baztertua geratu zen. Hala ere, klase sozial boteretsuen artean iraun zuen usain gogor eta iraunkorrekin lurrintzeko ohiturak, higiene-faltak eragindako usain txarra ezkutatzeko.

Avicena (980-1037 K.o.) Persiako mediku eta filosofo handiak asmatu zuen serpentina edo baporea hozteko hodia, eta horrela, destilazio-prozesua perfektiora eraman zuen. Arrosa-ura destilatzen lehena izan zen. Asmakizun hari esker, mota guztietako esentziak lortzeko lore, belar aromatiko, espezia eta egur aromatiko asko destila daitezke.

Erdi Aroaren amaieran egin zituzten arabiarrek lehen lurrinak alkoholarekin eta olio esentzialekin; gaur egun ezagutzen dugun perfumegintza garai hartan hasi zen.

Errenazimentuan, zientzien eta arteen loraldian, Erdi Aroan ezarritako higiene-faltak jarraitu zuen. Altzariak, arropa, apaingarriak eta animaliak ere lurrindu ziren, gelek eta pertsonak zuten usain txarra ezkutatzeko. Lurrin gogokoenak biziak eta iraunkorrak ziren, eta musketa-kontzentrazio handia zuten.

XVIII. mendean hasi zen perfumegintza-negozioaren karrera. Perfume-maisuak formula berritzaileak egiten hasi ziren, eta Frantzia lurringintza modernoaren sorleku bihurtu zen. Higiene-ohiturak areagotzearen ondorioz, usain freskoagoak eta arinagoak agertu ziren. Lehen kolonia-ura, ustez, Johann Marie Farinak sortu zuen.

XIX. mendean, *enfleurage* deitu zuten teknikaren asmakuntzarekin, oso lore delikatuen molekula aromatikoen sintesia (usaina) lortu zen. Destilazioarekin lortu ezinezko gaien aromak lortu ziren, kumarinarena adibidez. Horrek belar moztuaren eta banillaren arteko usain berezia du. Teknika horrekin, aroma-familia berriak sortzen hasi ziren.

XX. mendean perfumea goi mailako moda-etxeekin lotu zen, eta horrela jarraitzen du gaur egun.

XXI. mendean, perfumegintzan asko esperimendatzen da. Lurrin pertsonalizatuak diseinatzen dira esentzien nahasketekin, eta gaur egungo klasikoak berrasmatu egiten dira, egungo gustuetara egokituta eta urtaro bakoitzerako gamak sortu eta esentziaren bat aldatuz. *Antiperfume* kontzeptua ere agertzen da, eta ezinezko aromak bilatzen ditu, hala nola mundruna-, gasolina-usaina edo arropa-garbitokiaren usaina duten lurrinak sortzen dira.

## 1.2. PERFUMEAK, LURRINAK EDO USAIN GOZOAK

Lurrina harmoniarekin konbinatutako substantzia aromatikoen nahasketa bat da. Haren elementu lurrunkorrek arnastean plazera eragiteko gai den konposizioa lortzea du asmoa.

**Likido aromatiko gisa defini daiteke, normalean nahasketa hidroalkoholiko bat, usain atseginak askatzeko erabiltzen dena.**

Lurringileek, usain sinpleak nahastuz, forma aromatiko konplexuagoak lortzen dituzte, edozein artelanekin konpara daitezkeenak beren nolakotasunetan. Nahasketa hori ez da kasualitatearen ondorioa, laborategiko saiakuntzen bidez ideia baten garapena baizik. Saiakera ezberdinen bidez, lurrinari identitate definitu bat ematea helburu dute.

**Lurrinaren kalitatea osagaien kalitatearen eta osaeraren harmoniaren araberakoa da. Harmoniarik gabe usaina dago, baina perfumerik ez.**

Gainera, eramaten duenari buruz hitz egiten du lurrinak, inpresioa eragiten dio usaintzen duenari, eta oroimenean azterna bat uzten du. Hori dela eta, irudiaren profesionalarentzat oso garrantzitsua da haiek ezagutzea eta bezeroari aholkuak ematen jakitea.

### 1.2.1. OSAGIAK ETA EGITURA KOSMETIKOA

Lurrina olio esentzial aromatikoen, alkoholaren eta usain finkatzailearen nahasketa bat da, hainbat objektu -bategi ere, giza gorputzari- usain atsegina eta iraunkorra emateko erabiltzen dena.

Perfume gintzan, konposizio lurrinak osatzen dituzten landare, animalia, mineral edo sintetikoaren usaimeneko molekula multzoari esaten zaio.

Lurrunkortasuna edozein substantzia usaina izateko ezinbesteko ezaugarritze fisiko bat da. Lurrinak substantzia lurrunkorrez osatuta daude, baina horiek ez dute inoiz hegakortasun uniformerik izaten, batetik bestera aldatuz. Horrek esan nahi du usain ezberdinak hautematea, hegakortasun edo lurrunkortasun handienetik txikienera



ordenatuta, eta horrek iraupenean eragina izatea. Hau da, substantzia baten lurrunkortasuna oso handia bada, guk segituan antzemango dugu haren usaina perfume batean, eta horrek usain horren iraunkortasunean ere zeresana izango du.

### 1.2.2. NOTAK

**Lurrina osatzen duten usainei, haren osagaien lurrunkortasunaren arabera, *nota* deitzen zaie eta hasierakoa, bihotzekoa eta hondokoa dira.**

- **Hasierako notak.** *Buruko notak* ere deitzen zaie, eta horiek dira bizkorren iraultzen direnak eta, ondorioz, gure hartzaille sentsitiboek detektatzen dituzten lehenak; beraz, lurrin baten hasierako inpresioa dira. Usaimen-sentsazio freskoak, etereoak eta iraupen laburrekoak ematen dituzten usain leunak izaten dira. Zitrikoek, lore zuriek eta espezia batzuek ematen dituzte.

- **Bihotzeko notak.** Gorputzeko notak deituak, osatzen dute lurrinaren erdiko zatia, lurrinaren osagai nagusiak dira, haren nortasunaren erantzule. Aberastasuna, bolumena eta exotismoa ematen dute. Aldehidoak, fruituak, loreak eta espeziak dira. Usainak minutu batzuetatik lau ordotara iraun dezake.

- **Hondoko notak.** *Isatsa* ere deitzen zaie. Larruazalean geratzen diren notak iraunkorrenak dira; ez hain lurrunkorrek. Lurrina ezaugarritzen duten zur-notak, ekialdeko anbardunak eta animalien notak dira. Haien funtzioa lurrinaren gainerako notak finkatzea da; beraz, lurrinak iraun egiten du.

Ikus daitekeenez, elkarren kontrako bi kontzeptu aurkezten dira: aldakortasuna (lurrunkortasuna) eta iraunkortasuna. Lehenengoak sentsazio freskoak eta etereoak ematen ditu, eta bigarrenak, berriz, tinkotasun-, finkotasun- eta ezaugarritze-sentsazioak.

<b>USAIMEN-NOTAREN ARABERAKO FAMILIAK</b>	
<b>FAMILIA</b>	<b>NATURAKO ESENTZIAK</b>
BASATIA	izpiliku-fina ( <i>Lavandula angustifolia</i> ), ipurua ( <i>Juniperus comunis</i> ), erromeroa ( <i>Rosmarinus officinalis</i> )
AROMATIKOA	zizare-belarra ( <i>Artemisia vulgaris</i> ), berbena-limoiusaina ( <i>Aloysia citriodora</i> ), salbia ( <i>Salvia officinalis</i> ), ezkaia ( <i>Thymus vulgaris</i> )
ANISATUA	albaka ( <i>Ocimum basilicum</i> ), estragoia ( <i>Artemisia dracunculus</i> ), mihilua ( <i>Foeniculum vulgare</i> ), babilia ( <i>Babiana stricta</i> )
ZITRIKOA	limoia, bergamota, mandarina, pomelo
LARANJA	laranja-lorea ( <i>Citrus vulgaris</i> ), <i>Petit graina</i> ( <i>Citrus vulgaris</i> aren hostoak)
LOREA	jasmina ( <i>jasminum</i> ), nardoa, bioleta, <i>ylang-ylanga</i> , irisa, mugeta
ARROSA	arrosa, geranioa, palmarosa, krabelina
BERDEA	galbanoa, arabarba, bioleta, piku-hosto
EGURRA	patxulia, sandaloa, betiberra, ebano berdea ( <i>Jacaranda acutifolia</i> ), zedroa

ESPEZIEAK	piperbeltza ( <i>Piper nigrum</i> ), kardamomoa ( <i>Elettaria cardamomum</i> ), martorria ( <i>Coriandrum sativum</i> ), intxaur muskatua ( <i>Myristica</i> )
BALTSAMIKOA	intsentsua, mirra, <i>benjuia</i> , Copaiba baltsamoa, banilla ( <i>vanilla planifolia</i> ), toluenoa
ANIMALIA	musketa, anbar arrea, kastorea, zibeta

### 1.2.3. PRINTZIPIO AKTIBOAK EDO LEHENGAIK

Lurrinen printzipio aktiboak konposizioari nota bereizgarriak ematen dizkioten esentziak dira.

Esentzia estraktu likido edo oretsu batean kontzentratutako substantzia aromatikoa da. Naturala edo sintetikoa izan daiteke.

#### Naturala

- Landare-jatorrikoa: fruitu, lore, landare, egur edo sustraietatik lortutako esentzia-olio, erretxina edo baltsamoak dira.
- Animalia-jatorrikoa: anbar arrearen, musketaren eta kastorearen koipeak hondoko nota edo perfume baten finkatzaile gisa erabiltzen dira.

#### Sintetikoa

- Laborategian sortua esentzia naturalak zatikatuz edo sintesi kimikoko prozesuen bidez (geraniola, glizerinaren diazetatoa, etab.).

Esentziak uretan disolbaezinak dira; disolbatzaile organikoetan, alkoholean eta olio finkoetan, berriz, disolbagarriak. Lurrunkorrak eta ezegonkorak dira; beraz, lurruntzea eta oxidatzea saihesteko, 15 eta 20 °C artean mantendu behar dira, poto itxietan, argitik babestuta.

## GEHIAGO JAKITEKO

### Musketa

Musketa gai usaintsu bat da, perfume-gintzan asko erabiltzen dena. Zenbait animalia-oren organo genitalatik gertu dauden guruinek jariatzen dute, hala nola orein musketadunarenak, idi musketadunarenak eta ahuntz musketadunarenak. Animalia horien musketa-guruinen funtzioa emeak erakartzea da, musketa-usaina askatuz.

Lurrinetan erabilitako musketa Asia erdialdeko orein musketadunetik ateratzen da. Haren prezioa oso altua da, hura lortzeko animalia hil, eta guruina atera behar baita. Lehortu ondoren, hauts-pikorra lortzen da. Oso diluituta dauden musketa bidezko disoluzio alkoholikoak erabiltzen dira usain atsegina lortzeko.

Txinako medikuntza tradizionalak propietate garrantzitsuak egozten dizkio musketari: zentzumenak zorroztea, gorputzeko kanal nagusien eta alboetako egoera hobetzea, odol-zirkulazioa estimulatzea, inflamazioak murriztea eta barne-beroa edo sukarra arintzea.

Mila urte baino gehiagoz, musketa basa-musketa-dunen ehizatik lortu da, baina praktika hori espeziearentzat mehatxu bihurtzen ari zen. Gaur egun, Arriskuan Dauden Fauna eta Flora Espezie Basatien Nazioarteko Merkataritza Konbentzioak (CITES) gainbegiratzen du salmenta.

### Lehengaiak lortzea

Lurrinak landare-erreinutik, animalia-erreinutik edo sintesi organikotik lortzen diren substantzia usaintsuen nahasketatik datoz. Substantzia usaintsu horiek lortzeko hainbat metodo daude.

- Presioa. Metodo simple bat da, batez ere zitrikoen kasuan erabiltzen dena (laranja, lima, limoia edo pomeloa). Horien esentzia-olio azalean kokatutako guruinetan kokatzen dira. Presioa hotzean egiten da, guruinen edukiaren irteera errazteko.

- Destilazioa. Disoluzio bateko substantziak banatzeko erabiltzen den teknika da, substantzia horien irakite-puntuetan oinarritzen dena. Ur-lurrunaren bidez materia aromatikoek irakiten dagoen uraren eragina jasaten dute, eta esentzien lurrunak sortzen dira. Ur-lurrunak esentzia horiek arrastatzen ditu. Ondoren, lurrun horiek kondentsatu, eta dekantazio bidez bereiziko dira.
- Exudazioa. Erretxinak eta balsamoak lortzeko balio du. Landareetan mozketak eta ebakidurak eginez lortzen da. Horrela lortzen dira intsentsua, *benjuia*, trementina eta beste gai batzuk.
- Pirogenazioa. Hozteko zutabe bat duten burdinazko ontzietan beroaren ekintza suntsitzailea erabiltzen duen sistema baten bidez, urki-brea eta ipuruaren esentzia-olioak ematen ditu, besteak beste.
- *Enfleuragea* eta beratze bidezko erauzketa. Teknika hori ez da gaur egun erabiltzen, baina garrantzi historiko handia du. Lore delikatuen aromak ateratzeko erabiltzen zen, disolbatzaile finkoen bidez. Loreen petaloak gantzgeruza hotz baten gainean jartzen dira, eta geruza horrek askatutako elementu lurrunkorrek biltzen ditu. Gantz hori lore freskoen usainez betetzen zen, pomada bat konkretu bat osatu arte, alkoholarekin tratatzen zena, lurrundu ondoren lorearen absolutua lortzeko. *Enfleuragearekin* paraleloa den beste metodo bat loreak gantz berotan beratzea da, erauzketaren eraginkortasuna handitzeko.
- Erauzketa baldintza kritikoetan dauden gasen bidezko erauzketa. Gas likidoak erabiltzen dira, batez ere CO<sub>2</sub>a. Erauzketa-prozesu horren bidez, errendimendu onak lortzen dira, eta esentziaren osagaien alterazioak eta disolbatzaileen hondakinak saihesten dira. Zati txikietan moztutako landarea, likidotua edo ehoa, altzairu herdoilgaitzezko ganbera batean sartzen da, eta gas konprimatua zirkularazten da. Gasak disolbatzaile-erauzle gisa jarduten du, eta, ondoren, deskonpresio bidez ezabatu egiten da, giroko presioa eta temperatura lortu arte. Prozedura horren abantaila errendimendu handia da; ez du esentzien osaera aldatzen, eta ez da disolbatzailearen arrastorik agertzen. Eragozpen nagusia, berriz, presio altuei aurre egiteko gai diren ekipo garestiak behar izatea.

#### 1.2.4. ESZIPIENTEAK

Lurringintzako konposizioa *konposizio usaintsu* bihurtu dadin esentziak eszipiente batean sartu behar dira, normalean soluzio hidroalkoholiko batean, hau da, uraren eta alkoholaren nahasketa batean. Formatu hori gorputzean aplikatzeko egokiena delako erabiltzen da, eta, aldi berean, lurruntzea errazten du.

Lurrin-formetan erabiltzen diren eszipiente gehienak etilo alkoholarekin egiten dira, disolbatzaile ona delako, koloregabea delako eta berezko usain txiki bat besterik ez duelako. 80-96 bitarteko alkohol-graduazioa dute, eta esentzia-kantitatearen araberakoa da graduazioa; hau da, zenbat eta esentzia-kantitate handiagoa izan, orduan eta alkohol-graduazio handiagoa behar da.

Eszipienteak olioien eta gorputz koipetsuen nahasketak ere izan daitezke; beraz, lurrinak pasta, barra edo *stick* moduan ager daitezke, zuzenean larruazalean aplikatzeko.

Haurren azal delikatua dela eta, haienzako kolonia-urak 60 °-ko graduazioa izan behar du, elementu hezegarriak txertatuz. Glizerinak, adibidez, alkoholaren disolbatzaile-efektua zuzentzen du. Gaur egun, haurrentzako soluzio urtsuak erabiltzen dira, emulsionatzailedunak eta alkoholikgabeak.

#### 1.3. PERFUME BAT SORTZEA

Lurrina egiteko prozesua luzea eta neketsua da, eta askotan musika-pieza bat sortzearekin alderatu da. Lurringintzan erabiltzen den hiztegia musika-hizkuntzatik dator; horregatik, **notez** eta **akordeez** hitz egiten da behin eta berriro.

Lurringin batek, nahasketen bidez, notak fusionatzeko gai izan behar du, materia aromatiko-motak harmonizatuz; horrela, akordeak izenekoak lortuko dira. Hau da, usain-sorta berean modu atseginean osatzen diren bi elementu edo gehiagoren arteko lotura.

**Sudurra (gaztelaniazko *narices*).** Modu ez-formalean, horrela deitzen zaie lurrinen sorreraren atzean dauden artistei. Izenak ez du haien sudurraren tamainarekin

zerikusirik, guruin pituitarioaren kalitatearekin baizik; izan ere, lurringin horien usaimen-notak ezagutzeko gaitasuna batezbestekoarena baino askoz handiagoa da, eta oroimen ona dute milaka usain gogoratzeko. Berek sortuko dituzte, laborategietan esentzia-ontzitzoz eta beste substantzia batzuez inguratuta, gero marketin-sailarekin lankidetzan komertzializatuko diren lurrinak.

Lurringin batek mila esentzia baino gehiagorekin lan egin dezake. *Lurrin-organo* deitzen zaion zirkuluerdia osatzen duen mahaitxo-apalategi baten gainean ditu ordenatuta usaimen-notak familien arabera.

**Inspirazioa.** Inspirazioa sormenarekin lotzen da, ekoizpen artistikoarekin. Lurrina inspiraziotik sortzen da, eta lurringinaren sormen-gaitasunetik dator. Inspirazio-iturriak izan daitezke, batetik, materia usaintsuak (egur nobleak, larruak...), eta, bestetik, lurrin batek iradoki ditzakeen sentrazioak (feminitatea, sentsualitatea, dinamismoa, gizontasuna, exotismoa, etab.).

#### 1.3.1. AKORDEAK

Lurrin bat egiteko, hiru motatako substantzia aromatikoak aukeratu behar dira: hasierako notak ematen dituztenak, bihotzeko notak ematen dituztenak eta hondoko notak ematen dituztenak. Horrela, eboluzionatzen duen lurrin oso bat lortzen da; hau da, hasierako, bihotzeko eta hondoko notak modu koherentean agertzen dira denboran zehar.

Perfumegin bakoitzak bere lurrina eraikitzeke metodo propioa du, baina ohikoa da oinarritik hastea, hondoko notak aukeratuz, eta lurrina bihotzeko eta hasierako notak ematen dituzten esentziekin aberasten jarraitzea. Usain jakin batzuen nahasketak akorde ezagunak sortzen ditu. Horrela, adibidez, lurrin batek lore-akorde bat izan dezake, lore baten edo lore-multzo baten aromak markatuta, edo zipre-akorde bat, bergamotazko hasiera eta goroldiozko eta egurrezko hondoarekin.

### 1.3.2. KONPOSIZIOAREN EZAUGARRIAK

Olio esentzialen, erretxinen, absolutuen eta substantzia sintetikoaren konbinazioek eta horien kalitateak lurrinen bi propietate zehazten dituzte: potentzia eta iraunkortasuna.

**Potentzia.** Lurrin baten potentzia denbora-unitate jakin batean lurrundutako substantziaren kantitateari dagokio. Lurrin bat indartsua da aplikatu ondoren, azkar eta urrutitik hautematen denean. Hasierako notek definitzen dute propietate hori.

**Iraunkortasuna.** Lurrin baten iraunkortasuna haren usaina hautematen jarraitzen dugun denbora da. Bihotzeko eta hondoko notek baldintzatzen dute propietate hau.

Konposizioetan eragin daiteke, konposizioaren iraunkortasuna areagotzen duten lurrinak gehituz. *Finkatzaile* deitzen diegun arren, substantzia aromatiko zehatz batzuk besterik ez dira, hondoko nota jakin batzuk. Aldehido eta zetona sintetikoa erabil daitezke (iraunkortasun handikoak), hala nola musketaren (aroma garbia) eta anbararen ordezkatzaile sintetikoak. Lurrinaren finkapena areagotzeko, substantzia naturalak, erretxinak eta tinturak ere erabiltzen dira. Substantzia horien biskositate altuak esentzien lurrunketa oztopatzen duen pelikula bat osatzen du. Gainera, lurrin baten iraunkortasuna areagotu daiteke, esentzien (glizerina eta bentzil bezoatoa, esaterako) lurrunkortasuna gutxitzen duten substantziak gehituz.

### 1.4. PERFUME-MOTA EDO PERFUME-FORMEN SAILKAPENA

Usain atsegina eta pertsonalizatua ematea helburu duten soluzio guztiak forma lurringarriak dira. Soluzioak perfumea gorputzean aplikatzeko formatu ezin hobeak dira, lurrunketa errazten dutelako.

Lurrinak hainbat modutara sailkatu daitezke, esentzia- eta alkohol-kontzentrazioaren arabera, usain-familiaren arabera eta norentzat diseinatzen diren kontuan izanda.



#### 1.4.1. ESENTZIA- ETA ALKOHOL-KONTZENTRAZIOAREN ARABERAKOA

Lurrinaren iraupena aroma osatzen duten elementuen kontzentrazioaren arabera da. Perfumeak aromaren iraupenaren arabera sailkatu daitezke.

Produktua estraktu edo lurrin purua bada, usaina 4 eta 8 ordu artekoa izan daiteke, izan dezakeen esentzia puru kantitate handiena baitu. Horien eta ur freskoen artean konposizio asko daude kontzentrazio ezberdinekin. Kontzentrazio handienetik txikienera, honako hauek dira:

FORMA LURRINGARRIA	ESENTZIA-KONTZENTRAZIOA
<i>Spirit de parfum</i> (estraktua), 96 ° alkohola	% 25-40
<i>Parfum</i> (lurrina), 90 ° alkohola	% 20-25
<i>Eau de parfum</i> (lurrin-ura), 80-90 ° alkohola	% 15-20
<i>Eau de toilette</i> , 80-90 ° alkohola	% 7-15
<i>Eau de cologne</i> (kolonia-ura), 60-70 ° alkohola	% 3-7
<i>Splash</i> (ur perfumatua), 60-65 ° alkohola	% 1-3

Ohikoenak hauek dira:

***Eau de parfuma*** lurrina (perfumea) baino leunagoa da kontzentrazioaren erdia duelako; beraz, usainak gutxiago iraungo du. ***Eau de toilette***ak % 7 eta % 15 arteko kontzentrazioa du, eta perfume gintzan gehien erabiltzen diren lurrin-formak dira biak.

Uda garaian asko erabiltzen da, ***eau de toilette***, ***eau de cologne*** eta ***splash***ez gain, ***eau fraichea*** (ur freskoa), alkohol-eduki txikiagoa (70-80°) eta % 7ko esentzia-kontzentrazioa duena.

Lurrinak familietan biltzen dira, eta ñabardura osagarriek ematen diete nortasuna. Hona hemen familia klasikoenetako batzuk:

**Zipreak (*chypré*).** Besteak beste, laudano-, haritz-, goroldio- eta txara-usaina dutenak, gorputzeko nota loredunekin eta hasierako nota zitrikoekin. Lau klase daude:

- Zipre loretsu aldehidoa, ekialdeko loreak biltzen dituenak.
- Zipre frutaduna.
- Larruzko ziprea, nota lehorragoa duena, animalia-usainez eta usain freskoz ñabartua.
- Zipre berdea, buruko nota fresko eta ekialdeko hondoko nota kontrastatzen dituenak.

**Iratzeak.** Usain ugariz osatuak, hala nola izpilikua, goroldioa, haritza edo egurra. Gizonezkoentzako ohiko usainak dira.

**Larrudunak.** Familia honek nota balsamikoak eta egur-notak ditu, tabako usain leuna sortzen dutenak. Animalia-, ke- eta mundrun-esentzia nota batzuk gehituz, larru-usaina lortzen da. Horiek ere gizonezkoen lurrinetan usain ohikoak dira.

#### **Anbarduna**

- Anbar-egur loretsua. Egur-nota asko antzematen dira, lore-ñabardurekin.
- Anbar leuna. Usain goxo eta beroa du (talde honetan anbar-familia klasikoko lurrin adierazgarrienak daude).
- Erdi-anbar loretsua. Nota freskoak dira horien ezaugarriak.

**Loretsua.** Lore bakar batekin edo gehiagorekin sortua.

#### **GEHIAGO JAKITEKO**

Basatiak (gaztelaniaz, *agreste*) deitzen diren lurrinen notak gehien bat gizonezkoen parfumeetan erabiltzen dira. Nota zitrikoak, laranja- eta arrosak dira ur

freskoetan gehien erabiltzen direnak. Espeziadunak eta balsamikoak dentsitate handiko parfumeetan erabiltzen dira.

#### 1.4.3. NORENTZAT DISEINATZEN DIREN KONTUAN IZANDA

Lurrinak zuzenduta dauden pertsonen arabera sailkatu daitezke, nahiz eta gero haiek beste modu batera erabili. Hona hemen:

##### Emakumezkoen lurrinak

Ur freskoak (*eau fraiche*) emakumeentzat egunerokoan erabiltzeko egokiak izan daitezke; horregatik, harrera ona dute gaur egun. Hasierako notei eusten diete batez ere, baina garapen handiko lurrinak ere badira. Ur freskoek dinamismoa, xarma, gaztetasuna eta abar adierazten dituzte.

Lurrin biziak trinkoak, sarkorrak eta inguratzailleak dira, eta oso dotoreak izan daitezke gauez. Tradizioan sentsualitatea, erakarpena eta exotismoa, dotorezia eta edertasuna irudikatu dute.

##### Gizonezkoen lurrinak

Historian zehar gizonek emakumeek adina preziatu izan dituzte lurrinak, baina, egia da, egunez erabili izan dituzten lurrinak arinagoak izan direla, hala nola kolonia-ur freskoak, izpilikuz eta nota zitrikoz osatuak. Gauekoetan, berriz, espezieak eta egur-usainak erabiltzen dira, dentsoagoak.

##### Familia osoarentzako kolonia-urak

Usain freskoak eta naturalak dira, eta higieena eta txukuntasuna transmititzen dute. Bainatu ondoren erabiltzeko diseinatuta daude, haien efektu freskagarri eta estimulatzaileagatik.

Haurtxoen ur perfumatuak

Formulazio berezia dute (glizerina gehitzen zaie) haurtxoen produktuetan txertatzen diren esentziek. Inozentzia, freskura, segurtasuna, lasaitasuna, erosotasuna, higieena eta txukuntasuna transmititzea bilatzen da. Haurtxoentzat egokiak izateaz gain, egunez gizonak eta emakumeak ere erabil ditzakete alaitasun-, gaztetasun- eta xalotasun-sentsazioa emateko edo sentitzeko.

#### FUNTSEAN...

- Lurrinen ezaugarri bat da hegazkortasuna (lurrunkortasuna), baina inoiz ez da uniforme, osagaien arabera aldatzen baita. Osagaien lurrunkortasunaren arabera perfume bat osatzen duten zatiei *nota* deitzen zaie, eta hauek dira: hasierakoa, bihotzekoa eta hondokoa.
- Lurrinen printzipio aktiboak konposizioari euren nota bereizgarriak ematen dizkioten esentziak dira. Esentzia bat estraktu likido edo oretsu batean kontzentratutako substantzia aromatiko bat da; naturala edo sintetikoa izan daiteke.
- Forma lurringarrietan erabilitako eszipiente ia guztiek 80° eta 96° bitarteko graduazio alkoholikoa dute, daramaten esentzia-kantitatearen arabera.
- Lurrinak hainbat modutara sailkatu daitezke: familien arabera, beren aktibo-kontzentrazioaren arabera, diseinatzen diren publikoaren arabera...
- Perfume on baten sekretua osagaien konbinazio egokian eta horien kalitatean datza. Hautapen horrek lurrin baten potentzia eta iraunkortasuna baldintzatuko ditu.

#### JARDUERAK

1. Deskribatu esentziak. Esan zer eta nolakoak diren.
2. Zergatik da etanola forma lurrunkor gehienetan erabiltzen den eszipientea?.
3. Azaldu zer diren perfume baten notak, eta nola antzematen diren (iraupena etab.).
4. Definitu perfume baten potentzia eta iraunkortasuna.
5. Patrick Süskinden *Perfumea* liburuan oinarritutako filmak esentzia batzuen erauzketa-moduak erakusten ditu. Identifikatu zer esentzia lortu nahi dituen. Aukeratu erauzketa-mota egokiena lehengai bakoitzerako. Bilatu pelikulan adibideak, eta, gero, zuk lore edo beste sustantzia batzuk proposatu metodo bakoitzerako.
6. Diseinatu gutxienez gaur egunean saltzen diren 10 lurrin biltzen dituen taula bat. Identifikatu bertan hasierako notak, bihotzekoak eta hondokoak.

## 2. PERFUMEGINTZAKO PRODUKTUAK

Usainekiko dugun jarrera irrazionala da hein batean, izugarri gustatzen zaiguna edo gorrotarazten duguna izan baitaiteke. Sedukzioa, glamourra, luxua eta sofistikazioa bilatzen ditugu perfumeen bitartez. Pertsona batzuegandik urrunarazten gaituzten edo deprimitzen gaituzten lurrinak daude; energia eta indarra ematen diguten beste batzuk; eta, baita, gure ekintzak oztopa ditzaketen batzuk ere.

Horregatik, gustua ez dator beti bat komeni zaigun aromarekin, zeren, egia esan, ez baitago lurrin on edo txarrik, baizik eta egokiagoak, momentu bakoitzean adierazi edo sentitu nahi dugunaren arabera.

Gai honetan, lurrinari buruzko kontzeptuak eta, sorrarazten duten erantzuna kontuan izanda, egokiena hautatzeko jarraibideak ematen dira.

## 2.1. PERFUME BAT AUKERATZEN IKASTEA ETA USAIMENA HEZTEA

Lurrin egokia aukeratzen jakitea ez da lan erraza, faktore asko hartu behar baitira kontuan. Pertsona gehienek dozenaka probatzen dituzte erabaki aurretik, eta, hala ere, onena aukeratu duten seguru egon gabe erosten dute. Ohikoa da, halaber, komuneko apaletan lurrinontzi asko zahartzen ikustea; izan ere, opariak edo konbentzimendurik gabe erositakoak izan dira.

### 2.1.1. PROBATZEA ETA AUKERATZEA

Lurrinaren balioa lehengaien ezaugarriek eta konposizioaren harmoniak ematen dute, baina, ezin da ukatu, marketinaren ikuspegitik, perfumea gordetzen duen ontziaren garrantzia. Lurrin baten konposizioa ez da zoriaren emaitza, artelan bat lortzeko osagai askoren konbinazioa baizik. Gizakiok komunikatzeko erabiltzen dugu lurrina, usaimena zentzu primitiboa eta oso indartsua delako. Usainak zuzenean garunean sailkatzen ditugu, sistema linbikoaren bidez; sistema horrek lotura estua du gure zentro emozionalarekin. Usain soil batek oroitzapen ahantzi bat ekar diezaguke gogora berehala, eta emozioak biziki berpiztu.

Baina lurrin egokia aukeratzeko, usaimen-trikimailu batzuk ezagutu behar dira, eta kontuan izan behar da aromak urtaroa, eguna, ordua edo gure egoera emozionalaren arabera aldatu daitezkeela; are gehiago, lurrin bakoitza desberdina da jartzen duen pertsonaren arabera.

### 2.1.2. EROSTEKO GOMENDIOAK

Bezera batek lurrin batzuk probatu behar dituenean, ohartarazi behar diogu ez dela egokia ontzitik zuzenean usaintzea. Perfumeak probatzen hasi aurretik, galderen bitartez aukeratzen lagunduko diogu. Bezeraoren gustuekin hasiko gara. Adibidez, lurrin oso gozoak edo oso lehorrak baztertzeko aukera izango dugu, edo ekialdeko lurrin anbardunak edo lore-lurrinak gustuko dituen jakin ahalko dugu, eta horrela gustukoaren dituen usain-familieta hurbildu gaitzke.

Ez dira lauzpabost usain baino gehiago hautatu behar, oso litekeena baita usain-nahasketa dela eta usaimena sorgortuta geratzea.

Jarraian, paper xurgatzailearen gainean aukeratutako lurrin bakoitzetik pixka bat lurrindu, eta eskaini. Usaimen-prozesua eskalan egin behar da, hau da, arinenetik indartsuenera, bestela, usain batek bestea estal dezake, eta ñabardura batzuk ezingo dira hauteman.

Hori egin eta gero, bizpahiru laginekin geratuko da bezera segur aski, eta, orduan, larruazalean probatzeko aukera eskainiko dugu. Hori behar bezala egiteko, tanta bat jarri behar da eskumuturraren edo ukondoaren barrualdean. Horregatik, oso garrantzitsua da, nahiz eta, hasiera batean, hark emandako informazioa kontuan izan, bezeraekin batera probatzea lurrinak.

Eskumuturrak ez igurzteko eskatuko zaio, lurrinaren egitura ez suntsitzeko. Usaintzean, tarte bat utzi behar da sudurraren eta eskumuturraren artean eta minutu batzuk pasatu behar dira, larruazalaren azidotasunera eta berora egokitu dadin. Horrela, alkohola lurrunduko da, eta lurrinak larruazalaren usainarekin bat egingo du, lurrinaren garapena sentituz.

Bezeraari beranduago itzultzea gomendatuko zaio, lurrinak denboran izan duen bilakaera ikusi ahal izateko.

### *2.1.3. ERAKARGARRIA EDO GOGAIKARRIA IZATEA NORBAITENTZAT*

Lurrin bat erakargarria edo gogaikarria izango da ebaluatzen duen pertsonaren eta baldintzen baitan. Oso gai zabala den arren, perfume bat gustatzea edo ez gustatzea, pertsonaren edo perfumearen araberakoa izango da. Marketina eta pertzepzio sentsozialak erabakigarriak izango dira produktu bat onartzeko edo baztertzeko garaian, eta arrazoi horiek iraunkorrak edo zirkunstantzialak izan daitezke, eta, beraz, aldakorak.

Adibide gisa, kontsumitzaileak desatsegin duen marketin-kanpaina bat ikusteak eragin dezakeen arbuioa eta produktu baten porrota. Kontrako efektua gerta daiteke, marketin-kanpaina bat edo bezero batentzat erakargarria den iragarki batek produktu horren alde egingo du, eta bezeroak perfume hori erosiko du.

Usainak pertsona, leku edo une deserosoren bat gogorarazten duelako edo azalarekin kontaktuan jartzean ukipen-dermatitisa sortu duelako ere gerta daiteke errefusatzea. Era berean, usainak oroitzapen atseginak ekar diezazkioke, edo irribarre bat sorraraz dezake, arrazoia jakin gabe.

Hori guztia eta gehiago lortzen dute lurrinek.

Joera psikosozialek ere eragina dute lurrinetan, eta, horregatik, gizartearen gustuak aldatzen doaz. Duela hamarkada batzuk arte, lurrinen % 60 lore-notak ziren nagusi. Gaur egun, aldiz, lurrin berriek fruta-aroma izaten dute.

## 2.2. PERFUME BAT PERTSONA BATI EGOKITZEA

Pertsona batek hiru eta bost lurrin artean izan beharko lituzke, momentuaren arabera aukeratzeko.

Esentziarik onena aukeratzekoan, irudiaren profesional batek ez dio bere buruari bakarrik galdetu behar haren bezeroa zein den, baizik eta bere buruaz zer irudi proiektatu nahi duen, nola nahi duen besteek gogoratzea. Horregatik, garrantzitsua da azal eta nortasun bakoitzari hobekien laguntzen dion lurrina modu egokian aukeratzeko jakitea.

Oro har, loreek eta fruta-usainek markatzen dute emakumeen lurrinen nortasuna; gizonen lurrinek, berriz, tonu lehorragoak eta gogorragoak dituzte: belar-notak, larru-



notak eta tabako-notak, nahiz eta egungo joerek unisexaren alde egin. Gainera, lurrinak ere adinera egokitzen dira; gaztaroan, aroma arinak eta freskagarriak nahiago dira, bai eta frutadunak edo loredunak ere; urteekin, berriz, nota beroagoak, gozoagoak eta egur-notak aukeratzen dira.

### 2.2.1. HAUTAKETAN ERAGINA DUTEN FAKTOREAK

Kontsumitzaileak lurrin bat hautatzean eragin handia duten faktoreetako batzuk dira marketineko aldagaiak. Horien artean daude, besteak beste, prezioa, ontzia, usainaren ezaugarriak, publizitatea edo promozioak, saltokia, etab.

Horiek guztiak kontuan hartu behar ditu irudi pertsonaleko profesionalak, baina ezin ditu horiek bakarrik erabili, eta bezeroei aukera egokia aholkatu behar die, honako kontzeptu hauek kontuan hartuta.

#### Generoa

Ikusi dugunez, historian zehar lurrinak oso loretsuak eta sofistikuak izan dira emakumezkoentzat, eta espeziatuak mutilentzat. Ezaugarri bereziak eta oso desberdinak izan dituzte.

Azken urteotan, ordea, ohiturak aldatu egin dira. Zur-notei eta nota espeziatu beroei nota freskoak gehitzeko joera dago, hala nola kanela edo piperbeltza, genero guztientzat prestatzen diren lurrinetan. Horrela, gizonezkoen eta emakumezkoen lurrinak orekatuagoak bihurtu dira. Era berean, gizon askok, gaur egun, lurrin arinagoak aukeratzen dituzte, freskoagoak eta loretsuagoak.

#### Adina

Gazteek usain arinak erabiltzen dituzte, bereziki lurrunkorrek eta freskagarriak direnak. Naturaltasun eta garbitasun hori ematen duten nota freskoak zitrikoak eta lore arinenak dira. Urteekin, jendeak ekialdeko noten berotasuna eta gozotasuna, egurraren egonkortasuna eta lore-perfumegintza klasikoaren sakontasuna nahiago izaten ditu.

### Gorpuzkera

Harrigarria badirudi ere, harreman estua dago usaina eta burmuinak jasotzen duen formaren eta bolumen-sentsazioaren artean. Lurrin gozo eta oldarkorrek, ekialdekoek eta lore-akorde gehiegi dituztenek nahiz oso hedakorrek handitasun-sentsazioa ematen dute. Nota berde eta zitrikoak dituzten lurrinek nahiz lurrin freskoagoek arintasun-sentsazioa ematen dute.

### Urtaroa

Temperaturak eta hezetasunak zerikusi handia dute lurrin baten portaerarekin eta usainarekin. Notak zenbat eta baxuagoak izan, lurrinaren usaina orduan eta biziagoa eta iraunkorragoa izango da. Neguan adibidez, perfumeek gehiago irauten dute.

Aldi berean, lurrinen dentsitateak babes-sentsazio psikologikoa ere eragiten du; horregatik, udaberrian eta udan hobe da aromarik freskagarrienak erabiltzea. Zitrikoak eta nota berdeak fruta eta lore-akordeekin nahasten dira aromak aberasteko. Udazkenean eta neguan, aldiz, usain gozoek berotasuna eta babesa sentiarazten dute.

### Lan-mota

Lurrinak zerikusi handia du espazio pertsonalarekin, lurrina daraman pertsona inguratzen duen espazioa hartzen baitu. Pertsona bereberek ordu asko igarotzen dituzten lan-inguruneetan, beste lankide batzuen eremu pertsonala hartu dezaketen lurrinik ez erabiltzea da egokiena, bortitza eta deserosoa baita.

Aldi berean, jendaurrean lan egiten den lantokietan, garrantzitsua da besteen espazioa lurrinarekin ez inbaditzea.

Oro har, lantokietan ez dira gomendagarriak usain beroak, trinkoak eta gozoak. Nota arinak dituzten lurrinak erabiltzea komeni da, eta transmititu nahi den irudiaren arabera aukeratu.

## Ordua

Egunean zehar, oro har, diskrezioa eta naturaltasuna transmititu nahi dira; horregatik, ur freskoak bezalako lurrinak dira aproposenak. Arratsalde-gau partean nota lurrintsuagoak erabil daitezke; horretarako, perfume freskoek ematen dituzten aromak ezin hobeak dira. Gau berezietan, lurrin biziak dira osagarri onenak.

## Izaera

Izaeraren arabera, jendeak lurrin bat edo bestea aukeratzen du. Pertsona lotsatiek oharkabean pasatzen diren lurrinak aukeratzen dituzte, lore-nota freskoak dituzten lurrinak adibidez. Aldiz, izaera independenteagoa duten emakumeei ez zaie axola perfume berezi edo abangoardistagoak erabiltzea. Baliteke garai batean gizonezkoek erabiltzen zituzten notak dituzten aromak erabiltzea (tabakoa, larrua, etab.).

Emakume kontserbadoreek usain dotoreak eta akorde loretsu konplexuak aukeratzen dituzte. Harroentzat, ekialdeko aroma eta aroma espeziatuak gomendatzen dira. Emakume dinamikoek nahiago izaten dituzte basa-usaindunak diren lurrinak, nota sentzualen ñabardurekin.

Badaude teoria batzuk perfume-mota eta izaera lotzen saiatzen direnak, batez ere emakumeen kasuan. Horien arabera, emakume alai eta espontaneoentzat hobeak dira konposizio zitriko, fresko eta berdeak. Grinatsuenek eta pasio handikoek lurrin gozoak eta beroak maite izaten dituzte, jasmin, nardoa, arrosa, lila, anbar eta musketa-notekin. Emakume sentikor eta ameslariei lore-usainak gomendatzen zaizkie, hala nola arrosa, izpilikua edo jasmína. Kirolarientzat eta arriskua maite dutenentzat, natura, belar-usaina edo goroldioa gogorarazten dituzten usain fresko eta zitrikoak izan daitezke egokienak.

Teoria horren arabera test bat erabil daiteke, izaeraren arabera emakumeek nahiago izango duten edo gehiago komeniko zaien lurrina aukeratzen laguntzeko.

## Usainen testa

1. Zein da zure estiloa janzteko orduan?
  - a. Klasikoa.
  - b. Naturala, eroso.
  - c. Sofistikatua.
  - d. Abangoardista.
2. Zer gustatzen zaizu bizitzan gehien?
  - a. Gauzak behar bezala egitea, lana eta gainerako betebeharrak betetzea.
  - b. Familiarekin eta lagunekin denbora pasatzea, landara irtetea.
  - c. Lagunekin ateratzea, jaietara joatea
  - d. Abangoardista izatea, gauza berriak probatzea.
3. Nora joatea gustatzen zaizu oportretan?
  - a. Hondartzara.
  - b. Mendira.
  - c. Paraje galdu batera, bikotekidearekin.
  - d. Europara, ongi antolatutako ibilbide kultural batera.
4. Afaltzera irteten bazara, ...
  - a. Jabugo urdaiazpikoa, gazta eta ardo beltza aukeratzen dituzu.
  - b. jatetxe begetarianoa edo makrobiotikoa nahiago duzu.
  - c. marrubiak, txokolatea eta xanpaina hartzen dituzu, zalantzarik gabe.
  - d. sushia eta janari irudimentsua nahiago izaten duzu, zerbait berria.
5. Zein musika nahiago duzu?
  - a. Klasikoa.
  - b. Saltsa, erritmo latinoak, dantzatzeko zerbait.
  - c. *Chill outa*.
  - d. Alternatiboa.
6. Aukeratu honako aroma-multzo hauen artean:

- a. loreak, etxea, kafe egin berria
  - b. ekaitza, belarra, laranja-zukua
  - c. intsentsua, talkoa, espeziak
  - d. gasolina, liburu berria, fruitu exotikoak
7. Kirola aukeratzeko orduan, nahiago duzu:
- a. mantentze-gimnasia
  - b. bizikleta edo patinak
  - c. yoga edo pilatesa
  - d. gimnasioko aukerarik berriena, motibatze eta ez aspertzeko modukoa
8. Nolakoa zarela uste duzu?
- a. Femeninoa eta tradizionala.
  - b. Alaia eta dinamikoa.
  - c. Pentsakorra eta erromantikoa.
  - d. Beti gauza desberdinak esperimentatzeko eta ezagutzeko gogoz dagoena.

Zure usain-mota:

- ✓ ERANTZUN GEHIENAK a BADIRA. Freskoa eta naturala, zitrikoak bezala (bergamota, limoia, mandarina...), zipreak edo arrosaz egindako lore sinpleak.
- ✓ ERANTZUN GEHIENAK b BADIRA. Frutaduna eta belar notaduna, freskoa, uretakoa eta itsasokoa, sagarra, laranja gozo-lorea, izpilikua...
- ✓ ERANTZUN GEHIENAK c BADIRA. Beroa eta sarkorra, ekialdeko loreak bezalakoa, espeziatua, egur-notaduna, *ylang-ylanga*, banilla, kanela, jengibrea, kardamomoa, jasmina, intsentsua, musketa, anbara.
- ✓ ERANTZUN GEHIENAK d BADIRA. Akorde sintetikoduna, *bouquet* berria edo egile-lurrina.

Lurrinak, beti kantitate txikian, indar handiagoa izango du odola azaletik gertu pasatzen den puntuetan. Lurrina eman dezakegun puntu horietako batzuk hauek dira: lepoa, bularraldea, ukondoen barrualdeko tolestura, garondoa, eskumuturra, belaunpea, orkatila, belarri-gingilaren atzeko alde eta sorbalda. Ilea ere lurrinaren hedatzaile izan daiteke, usaina hedatuz burua mugitzen den bakoitzean.

Aroma intimoagoa izan dadin, bularrean lurrin-kantitate txiki bat eman daiteke, kontuan hartuta emaitza hobea izango dela dutxatik ateratzean ematen bada, azala garbi dagoenean. Lurrina arropa edo bitxiak baino lehenago jarri behar da; izan ere, jantziek usaina xurgatzen dute, eta bitxiak hondatu egin daitezke.

Harrigarria bada ere, arroparen koloreak berebiziko garrantzia du lurrinaren iraupenean. Arropa beltzak xurgatzen du usain gehien; gero, gehienetik gutxienerako ordenan: urdinak, berdeak, gorriak, eta, azkenik, kolore argienak.

Lurrinak erabiltzean, hainbat neurri hartu behar dira. Lurrin-konposizioek gaur egun ez dute furanokumarinarik eta bergaptenorik izaten, baina, hala ere, ez da azala eguzkitan jarri behar lurrina bota ostean, fototoxikotasun- edo alergia-arriskua saihesteko. Fototoxikotasuna eta fotoalergia erreakzio narritagarri edo alergikoak dira, eguzki-erradiazioaren edo UV izpien ondorioz sortzen direnak. Argirik egongo ez balitz, esentzia horiek ez lukete erreakziorik sortuko.

Estatistikoki, erreakzio gehien sortzen dituzten molekulak lurrinetan erabiltzen direnak dira. Hipoalergeniko deitzen diren lurrinen osagaiak ez dute izaten kontaktu alergikoko dermatitis gehienak sortzen dituzten molekularik. Osagai horiek nahitaez adierazi behar dira etiketan. Gaur egun, *alergien kopurua murrizteko formulatutako lurrinak* deitzea hobesten da, esentzia aromatikoen nahasketek erreakzio ezezagun berriak sor baititzakete.

## 2.4. PERFUMEA ZAINTEA ETA KONTSERBATZEA

Oro har, soluzio hidroalkoholikoak oso egonkorak dira; hala ere, esentziak oxidagarriak dira, kontserbazioa ziurtatzeko gutxieneko baldintza batzuk betetzen ez badira. Beroa, argia eta airea dira perfumeen egonkortasuna mantentzeko gehien saihestu behar diren elementuak. Horregatik, honako hau egin behar da:

- Lurrinak leku freskoetan mantendu.
- Ontziak ondo itxita gorde, lurruntzea eta oxidatzea saihesteko.
- Eguzki-argi zuzena saihestu.

Hala eta guztiz ere, esentzien iraungitze-data bi urte ingurukoa da; beraz, lurrinak ez dira gorde egun berezietarako behar. Hobe da ontzi txikiak erostea eta amaitu arte erabiltzea; izan ere, iraungi badira, usain garratza hartzen dute.

### 2.4.1. ONTZIAREN GARRANTZIA

Argiaren eraginez esentziak oxidatzen direnez, ontzia garrantzitsua da esentzia ondo kontserbatzeko; izan ere, zenbat eta esentzia-kontzentrazio handiagoa izan, orduan eta opakuagoa izan beharko du produktua babesteko ontziak.

Badira arrazoi gehiago ontziari garrantzia emateko.

Lurrin-dendan, perfumea aukeratzeko garaian, ontzia funtsezkoa da bezeroarentzat. Hori dela eta, Lurrin-etxeek denbora eta baliabide asko eskaintzen dizkiote diseinuari, giza baliabideak zein baliabide ekonomikoak. Askotan, lurrina bera bezain garrantzitsua da ontzia, erabakigarria baita hura erosteko orduan.

Marketinekoek ontzien forma, kolore eta materialak erabiltzen dituzte eroslearengan eragina izateko eta kontzeptuak irudikatzeko. Adibidez, ontzia ikustean, aurreztu nahi duen bezero bati garesti itxura duela iruditzen bazaio, hau da, ez dagoela haren maila ekonomikoaren barnean, uko egingo dio produktuari. Hori, berriz, erosteko arrazoi ere izan daiteke, hain zuzen ere, produktu hori erakartzen duen kontsumitzailearentzat, hau da, produktua erostean prestigio-sentsazioa lortu nahi duenarentzat.

1911n, Paul Poiret jostun frantses handiak *Les parfums de Rosine* izeneko lurrin-lerro bat merkaturatu zuen, alabaren omenez, haren bilduma *janzten* amaitzeko, eta janzten zituen emakumeentzako osagarri. Une hartatik aurrera, lurrinaren eta modaren arteko lotura finkatu zen, eta jostun handiek eta *prêt-à-porter* enpresek urtero lurrin berriak merkaturatzen dituzte, sasoiko bilduma aurkeztearekin batera.

### FUNTSEAN...

- Lurrin baten konposizioa ez da zoriaren emaitza, artelan bat lortzeko osagai askoren konbinazioa baizik.
- Lurrin egokia aukeratzeko, kontuan izan behar da aromak urtaroaren, egunaren, orduaren edo gure egoera emozionalaren arabera aldatu daitezkeela.
- Ez da egokia lurrina ontzitik zuzenean usaintzea.
- Lurrin bat erakargarria edo gogaikarria izango da, perfumearen beraren eta pertsonaren egoeraren arabera.
- Esentziarik onena aukeratzeko garaian, irudiaren profesionalak ez dio bere buruari bakarrik galdetu behar bezeroa nolakoa den; bezeroari ere galdetu beharko dio zer irudi eman nahi duen.
- Tenperaturak eta hezetasunak zerikusi handia dute lurrin baten portaerarekin eta usainarekin. Notak zenbat eta baxuagoak izan, lurrinaren usaina orduan eta biziagoa eta iraunkorragoa izango da. Neguan perfumeek gehiago irauten dute, besteak beste, arropa gehiago daramagulako eta gutxiago izerditzen garelako.
- Lurrinak oxidatu egiten dira beroarengatik, argiarengatik eta airearengatik. Horregatik, ondo babestu behar dugu haren egonkortasuna eta kalitatea mantentzeko.
- Perfume baten ontzia oso garrantzitsua da, eta baliabide asko eskaintzen zaizkio haren diseinuari.



- Perfume egoki bat aukeratzeko, oso baliagarriak dira profesionalen aholkuak eta laguntza.

#### JARDUERAK

1. Zerk ematen dio balioa perfume bati?
2. Zer arrazoiengatik gogaitu edo erakarriko gaitu perfume batek?
3. Urtaroak zerikusirik ba al du perfume bat erabili edo aukeratzean?
4. Ilearnen koloreak ba al du garrantzirik perfumea aukeratzean?
5. Azaldu perfume bat ongi mantentzeko hartu beharreko neurriak.
6. Zer mezu jaso dezake kontsumitzaile batek ontzi bat edo beste ikustean?
7. Zer irudi ematen du ontzi batek? Zer transmiti diezaiekete perfume-ontziek kontsumitzaileei?
8. Perfume batek azala orbandu dezake? Nola? Egin ezazu perfume baten proba eta ebaluazioa, pauso egokiei jarraituz.
9. Lan egin hiru pertsonarekin. Eman hiru lurrin desberdin usaintzeko. Bete bakoitzari buruzko fitxa bat, 1etik 10era ebalua ditzaten, eta jaso idatziz dituzten sentipenak.
  1. Konparatu jasotako iritziak eta puntuazioa, eta lotu haien izaerarekin, adinarekin eta estiloarekin.
  2. Egin txosten bat jasotako datuekin.
  3. Azkenik, gomendatu lurrin bat bakoitzari.

### 3. AROMATERAPIA ETA AROMA-KOSMETIKA

Aromaterapia sortu zen gizakiak zenbait landare eskuen artean zapaltzean edo sutan botatzean sortzen zituzten usainek gorputzean eta adimenean eragindako efektu osasungarriak eta lasaigarriak ezagutzean. Historian zehar, kultura gehienetan erabili

izan dira esentzia-olioak. Hasieran, aromaterapia erlijioari eta magiari lotuta zegoen, baita sendatze-prozesuei eta edergintzari ere.

Gaur egun, esentzia-olioen erabilerari esker, kabinako tratamenduak erabat pertsonaliza daitezke, olioen propietateak eta usainek gorputz eta adimenean duten eragina aprobetxatuz. Estetikaren eta edergintzaren munduan lan egiten dutenek esentzia-olioen propietateak, hartu beharreko neurriak eta kontraindikazioak ezagutu behar dituzte.

Gai honetan, aromaterapiaren oinarriak, efektuak eta esentzia-olioen propietateak aztertuko dira. Olio-eramaile kontzeptuaz eta diluzioak egiteko moduaz hitz egingo da. Azkenik, aurpegian, gorputzean eta manikuran edo pedikuran gehien erabiltzen diren olioak zerrendatuko ditugu, estetikako profesionalak zer behar duen ezagutu eta aukeratu dezan.

### 3.1.AROMATERAPIA

#### **Aromaterapia landareetatik ateratako esentzia-olioak osasun- eta edergintza-tratamenduetan erabiltzea da.**

Antzinetatik datorren praktika da. Esentzia-olioak landareen barruan sintetizatzen dira, eta hosto, lore, fruitu, sustrai edo egurrean gordetzen dira, haren usain bereizgarria emanaz. Landare-mota bakoitzak toki ezberdinetan gordetzen du haren esentzia-olioa; beraz, hura lortzeko metodo ezberdinak erabili behar dira.

Esentzia-olioen molekulak txikiak, lurrunkorrak eta lipofiloak dira. Horregatik, batetik, sudurretik arnastu daitezke eta odolera iritsi biriketarik, eta, bestetik, epidermisa zeharkatu dezakete masajearen bitartez edo aroma-bainu baten bidez.

### *3.1.1. USAIN-MOLEKULAK ETA NERBIO-SISTEMA*

Aireak lurruntzen diren molekula txikiak eramaten ditu. Arnasketa bakoitzarekin, gure sisteman usaindun molekulak sartzen dira; hau da, usaindu egiten dugu. Molekula kimiko horiek, gure sudur-zuloetatik sartu, eta sudur barruko usaimen-erzeptoreak ukitzen dituzte. Estimulatu diren zelulak burmuinaren atala den usain-erraboilera iristen dira, eta, hark, informazioa prozesatu, eta kortexera usain bakoitzeko seinale bat bidaltzen du. Han, usaina identifikatzen dugu, baina baita, sistema linbikoarekin lotuta dagoenez, usain horrekin bakoitzak lotzen dituen oroitzapenak eta emozioak ere. Hori da aromaterapiaren oinarria.

### *3.1.2. USAIN-MOLEKULEN ERABILERA TRATAMENDU-KABINAN*

Merkatuan gailu asko daude, esentzia-olioak lurrundu, eta gelak lurrindu eta girotzeko erabil ditzakegunak. Garai batean, bonbillentzako uztaiak edo esentzia-erretzaileak erabiltzen ziren; gaur egun, ordea, lainoztagailu elektrikoak, esentzia-olioak tenperatura baxuan lurruntzen dituztenak.

Kabinan, aroma-kosmetikako tratamenduak egitean, ez dira gela girotzeko sistema horiek erabili behar, usain desberdinak nahas ez daitezten.

Estetika-tratamenduetarako esentzia-olioa aukeratzerakoan, bezeroaren beharrei erantzuten dien, nerbio-sistema lasaitu edo suspertuko duen, eta haren gustuei dagokien olio bat aukeratu behar da. Esentzia-olio gehienek usain sakon eta indartsuak dituzte, eta, bezeroak gustuko ez baditu, esperientzia txarra izan dezake, atsegina izan ordez.

## 3.2. ESENTZIA-OLIOAK

Esentzia-olioek, orokorrean, ura baino dentsitate baxuagoa dute. Giro-tenperaturan likidoak dira, eta, uretan disolbaezinak diren arren, usain berezia eman diezaiokete. Alkoholean, eterrean eta olio, gantz eta argizarietan disolba daitezke.

Esentzia-olioak ez dira beti koipetsuak ukitzean, kasu batzuetan halakoak diren arren. Gehienak gardenak dira, tonu beroak dituzte, baina denetarik dago. Adibidez, kamamilaren esentzia-olioa urdina da.

Esentzia-olioen konposizio kimikoa oso konplexua da. Landarearen beraren, jasotzen den momentuaren eta esentzia-olioa ateratzeko erabiltzen den metodoaren arabera aldatzen da. Hau da, faktore askok dute eragina esentzia-olio baten kalitatean eta eraginkortasunean kabinako tratamenduetan.

Esentzia-olioen osagaien familiako konposatu kimiko nagusiak hauek dira:

- Alkoholak: linalola adibidez, antiseptikoa.
- Aldehidoak: geraniola adibidez, antiinflamatorioa eta antiseptikoa.
- Zetonak: berbenona adibidez, lasaigarria, lipolitikoa, mukolitikoa eta orbaintzailea.
- Esterrak: benzilo benzoatoa adibidez, oso aromatikoa.
- Eterrak: estragola adibidez, antibakterianoa, lasaigarria eta antiinflamatorioa.
- Terpenoak eta deribatuak: limonenoa adibidez, antiseptikoa eta tonikoa.

Konposatu kimiko horiez gain, flabonoideak, kumarinak, taninoak eta azidoak aurkitu ditzakegu. Konposatu kimiko horiek sinergian lan egiten dute, eta esentzia-olio bakoitzaren erabilgarritasuna eta usaina baldintzatzen dute.

### 3.2.1. PROPIETATEAK

Esentzia-olioen konposaketa konplexuak efektu asko eragiten ditu gorputzean. Hiru bide erabil daitezke esentzia-olioak xurgatzeko edo barneratzeko: arnasbideak, azala edo ahoa.

- Aromak erabiliz egiten diren terapietan, esentzia-olio batzuek nerbio-sistema lasaitu edo estimulatzeko duten gaitasuna erabiltzen da.
- Esentzia-olioekin aho-aromaterapia ere egiten da. Esentzia-olio batzuk jan egin daitezke, baina beti mediku batek agindutako modu eta dosietan hartu behar dira.
- Masajea eginez, oso ondo aprobetxatzen dira esentzia-olioak; azalean, zirkulazio-sisteman eta lokomozio-aparatuan eragiten dute. Esentzia-olio gehienak antiseptiko eta bakterizidak dira, eta hori oso baliagarria da gorputzeko eta aurpegiko garbiketa-tratamenduetan eta aknea edo koipea duten azaletan lan egitean.

### 3.2.2. OLIO-ERAMAILEAK

Esentzia-olioak oso kontzentratuak dira, eta beti diluituta erabili behar dira. Horretarako, eramaileak erabili behar dira, hau da, landareen hazietatik edo hezurretatik ateratako olioak. Olio-eramaileek masajeetan asko laguntzen dute, eta beren propietateak gehitzen dizkiete esentzia-olioko tratamenduei. Olio horiek honelakoak izan behar dute: kalitate handikoak, birjinak eta tratamendu kimikorik edo fintze-prozesurik izan ez dutenak.

Erabilienak hauek dira: arbendola gozoaren olio, mahats-haziaren olio, arrosa musketaren olio, *jojoba*-olio, ur-olio, galorraz-olio, abrikot-haziaren olio eta sesamo-olio. Esentzia-olioak beste osagai batzuei gehitu dakizkieke kosmetika naturalean, orokorrean lipofiloak diren osagaiak daramatzaten guztiei.

### 3.2.3. NOLA ERABILI

- Esentzia-olioa arnasbideen bitartez barneratu daiteke, hura lurrunduz, sudurzuloetatik sartu, eta biriketara eta burmuinera iritsi arte.

- Aroma-bainuetan, uraren eta olioaren propietateak batzen dira. Bainuontzia ur beroarekin bete eta 5-7 esentzia-olio tanta bota, ura ondo nahastu, eta 15 minutu egon uretan sartuta.
- Esentzia-olioa olio-eramaile batean integratuz, masajea edo beste estetika-tratamendu batzuk erabili daitezke gorputzean barneratzeko azalaren bitartez.
- Kosmetikoetan integra daitezke: kremetan, maskaretan, tonikoetan...

#### 3.2.4. NEURRIAK ETA KONTRAINDIKAZIOAK

Esentzia-olioak, odolera iritsi, eta bertatik gorputz osora zabaltzen dira; horregatik, oso puruak izan behar dute. Erosterakoan, saltzaileak haien esentzia-olioaren jatorria, konposizioa eta kontraindikazioak adierazi behar dizkigu. Beti diluituta hartu behar dira, eta nahasketa erabili behar dugun momentuan diluitu behar da.

Eguzkitik eta berotik babesteko, ontzi ilunetan eta ondo itxita gorde behar dira.

**Esentzia-olioak mukosetan narritadura sortu dezake; beraz, begiak ukituko balitu, landare-olioarekin garbitu behar dira, ez urarekin. Esentzia-olioa fototoxikoa den kasuetan, zitrikoekin gertatzen den moduan, azala eguzkitik babestu behar da, 24 orduz, tratamenduaren ostean.**

Haurdunaldian ez dira esentzia-olio batzuk erabili behar, lehenengo lau hilabeteetan gutxienez.

Esentzia-olio batzuk bakarrik dira jangarriak, eta, hartzekotan, mediku batek gainbegiratuta izan behar du.

#### 3.3. AROMA-KOSMETIKA

Aroma-kosmetika kosmetikoei esentzia-olioak gehitzean datza. Horrela, aurpegiko eta gorputzeko tratamenduak pertsonaliza ditzakegu, haien propietateak aprobetxatuz, eta bezero bakoitzaren beharrei egokituz.

### 3.3.1. NOLA ERABILI

Esentzia-olioak beti diluituta erabili behar dira. Esentzia-olioak disoluzioaren % 2 izan behar du, eta, bestea, landare-olioa edo oinarri moduan erabiltzen den krema. Esentzia-olioak tanta-kontagailua daraman ontzi batean saltzea da ohikoena, eta lan egitean tantak kontaktzen dira normalean.

Erabili behar diren tantak kalkulatzeko, olio-eramailearen tanta-kopurua zati bi egin behar dugu. Adibidez, 20 ml olio-eramaile baditugu, 10 tanta esentzia-olio gehituko dizkiogu. Umeen kasuan, eta bereziki azal sentiberetan, erdia erabiliko da. Neurtzeko metodo hori ez da erabat zehatza, tantaren tamaina aldatzen baita esentzia-olioaren dentsitatearen eta tenperaturaren arabera, baina onar egin daiteke.

### 3.3.2. ESENTZIA-OLIOEN BIDEZ PERTSONALIZATUTAKO KOSMETIKA

Azalaren eta tratamenduaren arabera egokienak diren olioak erabiliko ditugu momentu bakoitzean.

## AURPEGIKO TRATAMENDUETAN ERABILTZEN DIREN ESENTZIA-OLIOAK

Aingeru belarra ( <i>Angelica archangelica</i> )	Mirra ( <i>Commiphora molmol</i> )
Apioa ( <i>Apium graveolens</i> )	Laranja mingotsa ( <i>Citrus aurantium</i> )
Te-zuhaitza ( <i>Melaleuca alternifolia</i> )	Laranja gozo-lorea ( <i>Nerolia</i> ) ( <i>Citrus aurantium dulcis</i> )
Benjuia ( <i>Styrax benzoin</i> )	Arrosa-makila ( <i>Caesalpinia brasiliensis</i> )
Bergamota ( <i>Citrus bergamia</i> )	Patxulia ( <i>Pogostemon patchouli</i> )
Cajeputa ( <i>Melaleuca leucadendron</i> )	Petit grainen azala ( <i>Citrus aurantium amara</i> )
Zedroa ( <i>Cedrus atlantica</i> )	Pomeloa ( <i>Citrus paradisi</i> )
Zipresa ( <i>Cupressus sempervirens</i> )	Erromeroa ( <i>Rosmarinus officinalis</i> )
Iltzea ( <i>Eugenia caryophyllata</i> )	Arrosa ( <i>Rosa damascena</i> eta <i>Rosa centifolia</i> )
Geranioa ( <i>Geranium robertianum</i> )	Salbia ( <i>Salvia sclarea</i> )
Intsentsua ( <i>Boswellia carteri</i> )	Sandaloa ( <i>Santalum mysore</i> )
Jasmina ( <i>Jasminum officinalis</i> )	Betilorea ( <i>Sempervivum tectorum</i> )
Erramua ( <i>Laurus nobilis</i> )	Betibera ( <i>Vetiveria zizanooides</i> )
Izpilikua ( <i>Lavandula officinalis</i> )	Ezkaia ( <i>Thymus vulgaris</i> )
Limoia ( <i>Citrus limonum</i> )	Bioleta ( <i>Viola odorata</i> )
Mandarina ( <i>Citrus reticulata</i> )	Ylang-ylanga ( <i>Cananga odorata</i> )
Kamamila ( <i>Matricaria chamomilla</i> )	Azenarioa ( <i>Daucus carota</i> )



## MANIKURAN ETA PEDIKURAN ERABILTZEN DIREN ESENTZIA-OLIOAK

Te-zuhaitza (*Melaleuca alternifolia*)

Ylang-ylanga (*Caranga odorata*)

Limoia (*Citrus limonum*)

## GORPUTZEKO TRATAMENDUETAN ERABILTZEN DIREN ESENTZIA-OLIOAK

Urkia (*Betula alba*)

Zitronela (*Cymbopogon citratus*)

Benjuia (*Styrax benzoin dryander*)

Limoia (*Citrus limonum*)

Zedroa (*Cedrus atlantica*)

Mandarina (*Citrus reticulata*)

Martorria (*Coriandrum sativum*)

Mendaroa (*Origanum majorana*)

Zipresa (*Cupressus sempervirens*)

Mendafina (*Mentha piperita*)

Ipurua (*Juniperus communis*)

Laranja gozo-lorea (*Nerolia*) (*Citrus aurantium amara*)

Geranioa (*Pelargonium graveolens*)

Oreganoa (*Origanum vulgare*)

Mihilua (*Foeniculum vulgare*)

Patxulia (*Pogostemon patchouli*)

Jengibrea (*Zingiber officinalis*)

Pomelo (*Citrus paradisi*)

Izpilikua (*Lavandula officinalis*)

Ezkaia (*Thymus vulgaris*)

## FUNTSEAN...

- Esentzia-olioek onura handiak dituzte azalean eta aldarlean, eta adimenean eragin handia dute usainek.
- Purutasun eta kalitate handiko esentzia-olioak erabili behar dira, eta olio-eramaile edo kosmetiko egokian diluitu.
- Esentzia-olioen erabilerari esker, bezeroaren beharren arabera, kabinako tratamenduak pertsonaliza ditzakegu.
- Esentzia-olio bakoitzaren kontraindikazioak kontuan izan, eta fabrikatzaileak ongi kontserbatzeko emandako adierazpenei jarraitu behar diegu.
- Esentzia-olio tanta bat lortzeko, landare kiloak erabiltzen dira, eta gure esku dago modu arduratsuan erabiltzea.

## JARDUERAK

1. Zitrikoen esentzia-olioa lortzea. Laranjak, limak, pomeloak eta limoiak hartu, eta oso ondo garbitu azala urarekin, zikinkeria eta pestizida-arrasto guztiak kentzeko. Azal horiek eskuekin zapaldu indarrez. Ateratzen den likidoa da fruta horien esentzia-olio purua. Ohitu zaitez usain horietara, eta ezagutu bakoitza.
2. Aukeratu ezazu kasu bakoitzerako bi esentzia-olioen nahasketa:
  - a. emakumezkoa, 45 urte, azal lehorra eta itzalia
  - b. emakumezkoa, 30 urte, izterretan zelulitisa
  - c. gizonezkoa, 16 urte, azal koipetsua, aknea
3. Kalkula ezazu 60 ml mahats-hazien oliorekin zenbat sandalo-olio tanta erabili behar diren. Zer tratamendutan erabiliko zenuke nahasketa hori?
4. Erantzun galdera hauei:
  - a. Zergatik erabili behar dugu landare-olioa begiak garbitzeko, esentzia-olio bat sartu bazaigu?
  - b. Zergatik mantendu behar dira hermetikoki itxita esentzia-olioen ontziak?

- c. Zer esan nahi du esentzia-olioek sinergian lan egiten dutela?
  - d. Zer esan nahi du *foto toxiko* hitzak? Jarri esentzia-olio foto toxiko baten adibide bat.
5. Aukeratu itzazu 15 esentzia-olio, aromaterapiarekin lan egiten hasteko kit bat prestatzeko. Pentsatu bezero guztien beharrak betetzea komeni zaizula.
  6. Egin ezazu diapositiba-aurrezpen bat, kabinan erabilienak diren esentzia-olioak ateratzen diren landareen irudiekin.
  7. Landu kabinan erabiltzen diren olioek zerrenda. Aztertu haien ezaugarri organoleptikoak (kolorea, usaina eta testura).
  8. Bilatu Marguerite Maury-ri eta René-Maurice Gattefossé-ri buruzko informazioa.
  9. Bilatu ezazu zein den laranja mingotsaren, *neroli* edo laranja gozo-lorearen eta *petit grainen* esentzia-olioen arteko harremana.

## Laborategia

Perfume eta kosmetiko naturalek interes handia pizten dute gaur egun. Laborategiko ikasunitate hauen helburua da kosmetikoak egiteko behar diren tresnak eta materialak ezagutzea, formulak aztertzea eta laborategian lantzeko moduko teknika erraz batzuk ematea. Hori guztia segurtasun-, kalitate- eta garbitasun-araudiari jarraituz egiteko prestatzen lagundu nahi dugu ikaslea.

### 1. LAN-TRESNAK ETA ANTOLAKUNTZA

Lanean hasi aurretik, tokia antolatu, eta beharko diren tresnak eta materialak hautatu behar dira. Beti segurtasun-arauei jarraitu behar zaie arriskuak saihesteko.

#### 1.1. PERFUMEGINTZAKO LABORATEGIKO LANTOKIAREN ANTOLAKUNTZA ETA SEGURTASUN-ARAUAK

- Hasi aurretik, protokoloa irakurri. Zalantzak galdetu.
- Lan-eremua garbi eta ordenatuta mantendu. Ez utzi norberaren gauzak lan-mahaiaren gainean.
- Aztertu materiala. Hasi aurretik, material guztia garbia egon behar da, eta beharko diren produktu guztiak eskura eduki behar dira.
- Praktikak hasi aurretik eta amaitutakoan, eskuak ondo garbitu eta lehortu. Zauriren bat izanez gero, estali egin behar da.
- Bereziki hauskorak diren materialak (beira) kontu handiz erabili.
- Ez probatu, usaindu edo jan produkturik. Kontuz erabili!
- Ez utzi ontziak tapatu gabe. Ondo itxi, erabili eta gero.
- Ontzi bat berotu behar bada, egurrezko pintza batzuekin eutsi.
- Sortu diren hondakinak gaika jaso.
- Amaitutakoan, gailu elektrikoak deskonektatu, dena jaso eta garbitu, eta materiala ondo gorde.

- Norbera babesteko ekipamendua erabili (mantala, betaurrekoak eta eskularruak).
- Jokatu honela arrisku ohikoenen aurrean:
  - ✓ Azalaren eta produktuen arteko kontakturik badago, ur hotzarekin garbitu.
  - ✓ Mahaia eta materialak zikintzen badira, urarekin garbitu eta lehortu.
  - ✓ Beira puskatzen bada, segituan jaso, zauririk ez eragiteko.
  - ✓ Gailu elektriko, konexio eta kableekin adi ibili; ez busti.
  - ✓ Ondo aztertu eta ezagutu arrisku-piktogramak.

### KORROSIOA



Ukipen edo partikulen jaurtiketaren ondorioz, kalte itzulezinak eragiteko arriskua.

Ez inhalatu, eta saihestu larruazala, begiak edo arropak ukitzea!

### LEHERKORRA



Leherketa-arriskua talka egitean, marruskaduraren eraginez, elektrizitate estatikoaren eraginez, beroaren edota suaren edo beste sutze-iturri batzuen eraginez eta abar.

## ERREGARRIA



Leherketa-arriskua edota suteak eragin zein larriagotzekoa produktu erregaien eraginpean.

## SUKOIA



Erraz sutu daiteke sutze-iturri batekin kontaktuan (sugarra, elektrizitate estatikoa eta abar), beroaren edo marruskaduraren eraginez, urarekiko edo airearekiko ukipenean, gas sukoiak askatzean eta abar.

## GASA



Presiopean dauden gasen ontziak dira. Kasu batzuetan, leherketa-arriskua beroaren eraginpean. Gas konprimatu, likuatu edo disolbatuak dira.

## LARRUAZALEKO NARRITADURA



Dosi handietan, kontrako efektuak eragin ditzake osasunean. Begiak, eztarria, sudurra zein larruazala narrita ditzake.

## OSO TOXIKOA



Kontrako efektuak eragin ditzake osasunean, nahiz eta dosi txikiak izan. Zer esanik ez, dosi handietan!

## GIZA OSASUNERAKO ARRISKUA



Besteak beste, honako produktu hauei legokieke: kartzinogenoak, mutagenoak, ugalketarako toxikoak, organoen funtzionamendua aldaraz ditzaketenak eta abar.

## INGURUMENERAKO ARRISKUA



Uretako ingurunean dauden organismoei efektu oso kaltegarriak eragin diezazkieketen produktuak.

### 1.2. PERFUMEAK EGITEKO LABORATEGIKO MATERIALA

Laborategiko materiala erabiltzen da kosmetikoak eta perfumeak neurtu, manipulatu eta prestatzeko. Hauek dira gehien erabiltzen direnak:

### Bolumena neurtzeko materiala.

- Pipeta graduatuak. Likidoen bolumena ondo neurtu, eta ontzi batetik bestera eramateko erabiltzen da.
- Probeta. Zehaztasun handirik behar ez denean, bolumena neurtzeko erabiltzen da.
- Matrazea. Bolumena neurtu eta disoluzioak prestatzeko erabiltzen da.
- Hauspeakin-ontzia. Likidoak eduki, beste ontzietara eraman, eta disoluzioak eta suspentsioak prestatzeko erabiltzen da.
- Pasteur pipeta. Zehaztasunik behar ez duten likidoen bolumen txikiak eramateko erabiltzen da.

### Beste materiala.

- Inbutua. Filtro moduan, mutur estua duten ontziak bete edo likidoak ontziz aldatzeko erabiltzen da.
- Motrailua. Gaiak birrindu, nahasketak egin edo konposatu kimikoak banatzeko erabiltzen da.
- Erloju-beira. Solidoak hartu, eraman eta pisatzeko, eta ontziak estaltzeko erabiltzen da.
- Termometroa. Temperatura neurtzeko balio du.
- Egurrezko pintzak. Material edo ontzi beroei eusteko erabiltzen dira.
- Koilaratxoak edo espatulak. Ontzietatik gaiak hartu edo nahasteko balio dute.
- Paperezko iragazkiak. Filtratzeko erabiltzen dira.
- Ontzi-garbitzailea. Disoluzioak prestatu, eta materia ongi garbitzeko erabiltzen da.
- Eskuila. Laborategiko materiala garbitzeko balio du.
- Xukatzaila. Laborategiko materiala (matrazeak, probetak...) garbitu ondoren, lehortzeko erabiltzen da.
- PH-a neurtzeko papera. Kosmetikoen azidotasan-maila neurtzeko erabiltzen da.



Ekipoa.

- Balantza elektronikoa. Osagaien masa neurtzeko erabiltzen da.
- Bainu termostatikoa. Disoluzioak, emultsioak... modu ez-zuzenean berotzeko erabiltzen da.
- Destilagailuak. Likidoak banatzen ditu.
- *Rotavapor* gailua. Disolbatzaileak lurruntzen ditu.
- PH-neurgailuak. Azidotasun-maila modu zehatzean neurtzen du.
- Hozkailua. Osagaiak eta kosmetikoak denbora luzeagoz kontserbatzen ditu. 2 °C eta 8 °C artean jarri behar da.

## GEHIAGO JAKITEKO

### **Landareak jaso, eta lehortzeko prozesua**

Gure landareak jaso, eta perfumea egiteko prozesua hasieratik egin nahi badugu, pauso hauei jarraituko diegu:

- Egun eguzkitsu batean jaso, hezeak ez daudenean.
- Intsekturik ez dutela ziurtatu.
- Hostoak. Gazteenak hartu; lorea dutenean jaso.
- Haziak. Helduta eta lehorrak egon behar dute.
- Sustraiak. Landareak lorea duenean jaso, inguruko lurra kendu, eta kontuz tira egin, lur-arrastoak garbitu, eta oihal batekin lehortu.
- Paperaren gainean lehortzen utzi leku ilun eta lehorrean. Lehorrak daudenean, opakua den ontzi batean gorde.

### 1.3. ESENTZIEN ETA LEHENGAIEN HAUTAKETA

Esentziak eta naturatik zuzenean jasotako lehengai ugari merkaturatzen dira: loreak (arrosa, laranja-lorea..), usain-belarrak (izpilikua, erromeroa...), hostoak (limoi-belarra, aloea...), fruituen azala (limoia, bergamota), espeziak (banilla...), haziak (ipurua,

mirra...), egurrak (pinua, sandaloa...), itsas algak, olioak (musketa arrosa, urra...). Horien artean aukeratzeko, hainbat alderdi izan behar dira kontuan:

- Larruazalean, ilean eta azazkaletan duten efektua eta bigarren mailako ondorioak.
- Ea alergia-rik edo narritadurarik sortzen duten.
- Ea formulako beste osagaiekin fisikoki eta kimikoki bateragarriak diren.
- Kalitatea eta jatorria, beste konposatu kimiko sintetikoekin kutsatu ez dutela bermatzeko.
- Esentzien kasuan, jatorriaz gain, esentzia bera lortzeko prozedura, usainaren indarra edo bizitasuna, eta beste esentzia edo gai batzuekin nahastean harmonia sortzeko gai den edo ez.
- Esentzia edo gai natural batzuk dituzten muga edo debekuak.
- Ezaugarri organoleptikoak: esentzia-olioak edo edozein kosmetiko erabiltzean sortzen diren sentrazio, kolore, usain, testura edo itxura.

### 1.3.AURRETIK EGIN BEHARREKO LANAK. BOLUMENA ETA PISUA KALKULATZEA

Perfume edo kosmetiko bat egin aurretik, lan bat baino gehiago egin behar dira, lortu nahi denaren arabera. Laborategiko lan guztietan ontzi askotatik hartu behar dira produktuak, solido edo likidoak, eta kontaminazioa saihestu. Beraz,...

- ontzi baten tapoiaren barruko aldeak ezingo du inoiz ezer ukitu.
- ez dira sobera geratu zaizkigun produktu baten arrastoak haren hasierako ontzira berriz sartu behar.
- solidoak espatula edo koilaratxo batekin atera behar dira ontzitik.

Nola neurtu pisua balantza batean?

- Balantza piztu eta doitu.
- Pisua neurtzeko erabiliko dugun ontzia balantza gainean jarri, eta 0n jarri. Espatularekin, produktuaren ontzitik, gutxi gorabehera erabiliko dugun kantitatea hartu, eta balantzan dagoen ontzian jarri.
- Poliki-poliki, behar dugun produktu-kantitatea gehitu, zehatzak izateko eta behar dugun pisua lortzeko.

Nola neurtu bolumena?

- Bolumena neurtzeko, bolumen-eskalari begiratu behar zaio. Behar bezala irakurtzeko, behatzaileak begirada meniskoaren\* maila berean jarri behar du, eta meniskoaren kurbaren behealdea hartuko du erreferentzia modura, hori baita irakurri behar den neurria.

Solidoak eta/edo likidoak banatzeko erak.

- Iragazi: partikula solidoak banatzeko, tamainaren arabera.
- Dekantazioa: nahastu ezin diren eta dentsitate desberdina duten likidoak banatzeko.
- Filtratzea, zentrifugatzea, zapaltzea edo hauspeatzea: solidoak eta likidoak banatzeko.
- Destilatzea: irakite-puntu desberdina duten likidoak banatzeko. Destilazioa esentziak lortzeko teknikarik erabilienetakoa da.

---

\*Meniskoa: fisikan, likido baten gainazaleko kurba da, eta ontziaren gainazalarekiko duen erreakzioaren arabera aldatzen da. Kurba hori ahurra edo ganbila izan daiteke, likidoaren molekulen arabera. Ontziak molekulak erakarri edo errefusatuko ditu.

Nahasketak prestatzeko moduak.

Eskuz (hagaxka edo espatula erabiliz) edo aparatu mekanikoen bidez egin daitezke agitazio-metodoak.

a. Sistema homogeen edo heterogeen prestatzea

Oro har, fase urtsua gehitzen zaio fase oliotsuari eta fase urtsua, alkoholikoari, neurritz eraginez. Prozesuaren amaieran gehitzen dira substantzia termolabilak edo lurrunkorrak direnak, giro-tenperaturaren.

b. Kontzentrazioa kalkulatzeko

Nahasketetan, osagai-kontzentrazioaren neurria hainbat unitatetan adieraz daiteke. Horretarako, honako kalkulatu hauek egin behar dira:

Masa-masa ehunekoa

$$\% \text{ m/m} = \frac{\text{solutuaren masa (g)}}{\text{disoluzioaren masa (g)}} \times 100$$

Masa-bolumen ehunekoa

$$\% \text{ m/v} = \frac{\text{solutuaren masa (g)}}{\text{disoluzioaren bolumena (ml)}} \times 100$$

Bolumen-bolumen ehunekoa

$$\% \text{ v/v} = \frac{\text{solutuaren bolumena (ml)}}{\text{disoluzioaren bolumena (ml)}} \times 100$$

## 1.5.ESENTZIA-OLIOA LORTZEKO PROZESUAK

Hotzean beratzea

1. Bete beirazko ontzi bat erdiraino esentzia-olioa egiteko aukeratu ditugun landare lehorrez (izpilikua eta erromeroa, adibidez).

2. Estali arbendola gozoen olioarekin, eta hermetikoki itxi (aireak olio ez oxidatzeko).
3. Gorde leku lehorrean eta ilunean, eta 20 °C baino gutxiagoko tenperaturan, bi astez. Noizean behin astindu.
4. Denbora pasatu ostean, iragazi iragazki-paperarekin. Landareak bota.
5. Egin berriro prozesua:
  - a. Landare lehorrez bete beirazko beste ontzi ilun bat erdiraino, eta estali aurretik beratzen izan dugun olioarekin.
  - b. Gorde leku lehor eta ilunean, 20 °C baino gutxiagoko tenperaturan, bi astez. Noizean behin astindu.
  - c. Bi aste igaro ondoren, iragazi iragazki-paperarekin.

1. oharra. Lortutako olio erabili dugun landarearen (izpilikua, adibidez) landare-olioa da, eta haren esentzia eta propietate berak ditu. Bainu-olio gisa erabil daiteke (olioaren 15 ml nahastu uretan, eta gutxi gorabehera 15 minutuko bainu bat hartu daiteke) edo larruazala hidratatzeko.

2. oharra. Esentzia-olioa landare-oliotik banatu daiteke disolbatzailea erabiliz (adibidez, etanolaren bitartez).

- Nahastu % 2,5eko dentsitatea duen 5 ml sodio kloruroko disoluzioa olioarekin, faseak bereizten laguntzeko.
- Dekantazio-inbutu batean sartu, 15 ml etanol gehitu, eta nahastu. Alkohol-fasea baztertu. Hiru aldiz errepikatu prozesua.
- *Rotavapor* gailuan disolbatzailea lurrundu.

Hotzean zapaltzea

Zitrikoen (limoia, laranja, lima...) esentzia-olioak ateratzeko erabiltzen den metodoa da.

1. Zitrikoa zuritu.
2. Azala zatitxoetan moztu, eta kotoizko trapu baten gainean utzi.
3. Motrailu batekin birrindu.

4. Kotoizko trapuan sartu eta estutu. Atera den likidoa beirazko ontzi ilun batean sartu, eta tarte batez hor utzi.
5. Olioaren likidoaren gainean egongo da. Iragaziz banatu.

#### Uretan egostea

1. Esentzia-olioa egiteko aukeratzen ditugun landareak birrindu.
2. Txiki-txiki eginda daudenean, hauspeakin-ontzi batean jarri, destilatutako ur pixka bat gehitu, eta oso ondo nahastu.
3. Estali ontzia gaza bikoitz batekin, barruan kotoia duela, eta lotu zinta itsaskorraz.
4. Berotu, eta tenperatura baxuan irakin ura lurrundu arte.
5. Estutu kotoia, esentzia-olioa lortzeko.

## 2. PERFUME ETA KOSMETIKO NATURALAK SORTZEKO FORMULAK

### 2.1. PERFUMEAK SORTZEA

Perfume baten **osagaiak**:

- **Aktibo kosmetikoak** esentziak dira.
- **Finkatzaileek** iraunkortasuna handitu, eta lurrina finkatzen dute. Jatorriaren arabera animalienak (musketa, anbar grisa...), landareenak (erretxina, mirra, glizerina...) edo sintetikoak izan daitezke.
- **Eszipienteeek** esentziak diluitzen dituzte. Horretarako, ura, alkohola eta/edo olioak erabiltzen dira. Esentziaren ehunekoaren eta alkohol-motaren arabera era askotako alkoholdun perfume-motak sortzen dira. Horregatik, orokorrean, perfume baten konposizioa horrelakoa izaten da.

Esentzia	% 40 gehienez
Alkohola (% 60 eta % 96 artean)	% 60-% 99 artean
Ura (nahi izanez gero)	% 0-% 40 artean
Olioak/glizerina/propilenglikola/sorbitola (nahi izanez gero)	% 1-% 10 artean
Finkatzailea	Behar duena

Faseak, eragiketen sekuentziak eta denboralizazioa

- Lurrina osatuko duen edo duten esentzia(k) aukeratu.

- Dagokion alkohol-kantitatearen 2/3 probeta batean neurtu, eta ontzi batean bota.
- Esentzia neurtu (tantak edo mililitroak, formulak dioenaren arabera), eta alkoholetan diluitu, gutxinaka ontziaren bazterretik botaz eta nahastuz, oso poliki.
- Hauspeakin-ontzi batean gelditu den alkohola, finkatzailea eta, behar bada, ura, glizerina, propilenglikola, sorbitola edo olioak nahastu.
- Nahasketa hau lehen esentziarekin eta alkoholarekin egin dugunarekin elkartu, eta azkar irabiatu, ondo nahasteko. Beirazko ontzi batean gorde, eta ondo itxi.
- Ontzi hori gutxienez bi astez gorde leku fresko eta ilunean. Aldizka astindu, ondo nahasteko.
- Bi aste horiek pasatutakoan, lurrina ilun eta arre egongo da; beraz, sartu 24 orduz hozkailuan, 4-8 °C-an, disolbaezinak diren osagaiak hauspeatzeko.
- Filtratu nahasketa arrea inbutua eta iragazteko papera erabiliz.
- Itxi beirazko ontzia hermetikoki, eta etiketatu.

#### GEHIAGO JAKITEKO

Kosmetika naturalak osagai naturalekin egin behar du. Kimikoak, animalietan frogak egiten dituztenak edo edozer sufrimendu-mota eragiten dutenak saihestu behar dira. Helburua gorputzaren kontrako erreakzioak eta osagaiak lortzeko edo produktua egiteko sortu daitezkeen ingurumenarekiko kalteak gutxitzea da. Formula sinple eta erraz horiekin sortutako lurrin eta kosmetiko naturalak egin bezain laster kontsumitu behar dira, eta leku lehor eta freskoan gorde, eguzkiaren izpietatik eta muturreko tenperaturetatik aldentuz, formularen propietateak gal ez daitezten.



**KOLONIA-UR ZITRIKOA****BEHARREZKO MATERIALA ETA EKIPOA**

- beirazko hagaxkak
- hauspeakin-ontziak
- probeta
- inbutua
- pipeta edo tanta-kontagailua
- iragazteko papera
- hozkailua
- ontzia

**KOSMETIKOAREN FORMULA**

<b>Osagaiak</b>	<b>INCI kodea</b>	<b>Kantitatea</b>	<b>Propietateak</b>
Limoiaresentzia-olioa	<i>Citrus medica limonum Leaf Oil</i>	3 ml	Usaina
Laranja-lorearesentzia-olioa	<i>Citrus Aurantium dulcis Flower Extract</i>	3 ml	Usaina
70 ° alkohola	Alkohola	100 ml	Disolbatzailea
Dimetikona kopoliola	<i>Dimethicone Copolyol</i>	0,3 ml	Finkatzailea

INCI kodea ingeleseko *International Nomenclature of Cosmetic Ingredients*

Kosmetika naturalean dimetikona eta antzeko silikonak ez erabiltzen saiatu behar da. Horien orde, glizerina begetala erabil dezakegu.

#### JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK

1. Alkohola neurtu, eta gutxi gorabehera hauspeakin-ontzian 2/3 bota.
2. Esentzia-olioak gutxinaka bota, eta ongi nahas daitezten, beirazko hagaxkarekin irabiatu.
3. Beste hauspeakin-ontzi batean bota gelditzen den alkohola eta finkatzailea, eta nahastu.
4. Nahasketa hori aurretik esentziekin eta alkoholarekin egindako nahasketari erantsi, eta ongi nahastu. Ontzian sartu, eta itxi.
5. Bi aste gorde leku lehor, ilun eta freskoan (20 °C-ren azpitik). Noizbehinka astindu.
6. Ontzia bi astetan 24 orduz hozkailuan (4 -6 °C) eduki.
7. Inbutua eta iragazteko papera erabiliz, nahasketa filtratu.
8. Itxi hermetikoki beirazko ontzi ilun batean, eta etiketatu.

#### NOLA ERABILI

Eman lurrindu nahi dugun gorputzeko atalean (eskumuturra, belarriak, lepoa, etab.).

## BAINU-GATZAK LORE-PETALOEKIN

### BEHARREZKO MATERIALA ETA EKIPOA

- beirazko hagaxka
- ontzia
- beirazko motrailua
- kristalizadorea
- erloju-beira
- balantza
- espatulak

### KOSMETIKOAREN FORMULA

Osagaiak	INCI kodea	Kantitatea	Propietateak
Itsas-gatz lodia	<i>Sodium Chloride</i>	100 g	Oinarria
Arrosaren esentzia-olioa	<i>Rosa centifolia Oil</i>	III tanta	Usaina
<i>Ylang-ylangaren</i> esentzia-olioa	<i>Cananga odorata Flower Oil</i>	III tanta	Usaina
Arrosa eta <i>ylang-ylangaren</i> petaloak		Behar dena	Estetikoa

### JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK

1. Itsas-gatz lodia pisatu, eta beirazko motrailuan jarri.
2. Arrosa eta *ylang-ylang* tantak botatzen joan, eta ondo nahastu. Loreen petaloak gehitu.

3. Nahasketa kristalizadorean jarri, eta lehortzen utzi.
4. Ontzi opaku batean gorde, eta etiketatu.

#### NOLA ERABILI

Bainuko ura 36 °C-tan jarri, eta gatza bertan urtu. Gutxi gorabehera 15 minutuko bainua hartu.

## PINDAK (GORPUTZEKO MASAJE ERLAXAGARRIETARAKO)

### BEHARREZKO MATERIALA ETA EKIPOA

- pipeta
- katilua edo nahasketa egiteko ontzia
- gutxienez metro bateko sokatxoa
- kotoizko oihala 40 x 40 cm-koa
- balantza
- koilaratxoa
- erloju-beira

### KOSMETIKOAREN FORMULA

Osagaiak	INCI kodea	Kantitatea	Propietateak
Izpiliku fin lehorra	<i>Lavandula angustifolia</i>	20 g	Erlaxatzailea
<i>Ylang-ylangen</i> lore lehorrak	<i>Cananga odorata Flower</i>	20 g	Erlaxatzailea
<i>Petit-grainen</i> azal lehorra	<i>Citrus aurantium amara peel</i>	20 g	Erlaxatzailea
Izpiliku finaren esentzia-olioa	<i>Lavandula angustifolia extract</i>	II tanta	Usaina
<i>Ylang-ylangen</i> esentzia-olioa	<i>Cananga odorata flower extract</i>	II tanta	Usaina

<i>Petit grainen</i> esentzia-olioa	<i>Citrus aurantium</i> <i>amara Peel Extract</i>	Il tanta	Usaina
--	--	----------	--------

#### JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK

1. Erabili behar diren landare lehor bakoitzetik (*izpilikua, ylang-ylanga* eta *petit grainen* azala) 20 g pisatu.
2. Nahastu, eta esentzia-olio bakoitzetik 2 tanta bota.
3. 40x40cm-ko kotoi-zati bat moztu, eta ireki.
4. Kotoizko karratu horren erdian landare lehorrekin eta esentzia-olioekin egin dugun nahasketa jarri.
5. Karratuaren lau ertzak batu, eta biraka-biraka zakutxo bat egin landareak biltzeko. Gero lau ertzak barrurantz tolestu, sokaz lotu itzuli asko emanaz, eta lepo moduko bat osatu.

#### NOLA ERABILI

Masajerako erabiliko dugun pinda olio berotan sartu, gutxienez 1 cm. Minutu batzuk mantendu bertan eta, gero, sobera dagoen olioak kendu, eta masajea hasi baino lehenago probatu tenperatura egokia den.

## BAINURAKO BELAR-ZAKUTXOAK

### BEHAR DEN MATERIALA ETA EKIPOA

- balantza
- koilaratxo
- ontzia
- katilu bat
- koloretako sokak
- 30 cm-ko diametroa duen kotoizko oihala

### KOSMETIKOAREN FORMULA

Osagaiak	INCI kodea	Kantitatea	Propietateak
Oregano lehorra	<i>Origanum vulgare</i>	50 g	Freskagarri eta antiseptikoa
Erromero lehorra	<i>Rosmarinus officinalis</i>	50 g	Hidratatzaile eta tonikoa
Oloa	<i>Avena sativa</i>	30 g	Leungarri eta hidratatzailea
<i>Petit grainen</i> azal lehorra	<i>Citrus aurantium amara Peel</i>	15 g	Lasaigarria

### JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK

1. Erabili nahi ditugun landare lehorrak pisatu.
2. Katilu batean nahastu.
3. 30 cm-ko diametroa duen kotoi-zatia moztu, eta irekita utzi mahai gainean.

4. Zirkuluaren erdian, landare-nahasketa ipini.
5. Ertzetatik eutsi, eta biratu zakutxo bat egiteko. Landareek ondo bilduta gelditu behar dute. Bainuontziko txorrotatik zintzilikatu ahal izateko, koloretako soka luze batekin lotu.

#### NOLA ERABILI

Zakutxoa bainuontziko txorrotatik zintzilikatu ur beroak (38 °C) landareak busti ditzan, eta haien usain eta propietateak askatu ditzan.



## BELARREZ ETA IZPILIKUZ OSATUTAKO LORE-KONPOSIZIOAK

### BEHARREZKO MATERIALA ETA EKIPOA

- balantza
- koilaratxo
- katilua
- pipeta
- itxi daitekeen plastikozko poltsa

### KOSMETIKOAREN FORMULA

<b>Osagaiak</b>	<b>INCI kodea</b>	<b>Kantitatea</b>	<b>Propietateak</b>
Oregano-lore lehorrak	<i>Origanum vulgare</i>	25 g	Usaina eta oinarria
Izpiliku-lore lehorrak	<i>Lavandula latifolia</i>	50 g	Usaina eta oinarria
Mendabeltz lehorra	<i>Mentha spicata</i>	25 g	Usaina eta oinarria
Mendaro lehorra	<i>Origanum majorana</i>	25 g	Usaina eta oinarria
<i>Petit grainen azal</i> lehorra	<i>Citrus aurantium amara peel</i>	25 g	Usaina eta oinarria
Olibondo-hostoak	<i>Olea europea</i>	50 g	Usaina eta oinarria
Izpiliku fin lehorra	<i>Lavandula angustifolia</i>	25 g	Usaina eta oinarria

Izpiliku finaren esentzia-olioa	<i>Lavandula angustifolia Extract</i>	10 g	Usaina
------------------------------------	---	------	--------

#### JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK

1. Formulan dagoen landare lehor bakoitza pisatu.
2. Nahastu katilu batean, eta 10 ml esentzia gehitu.
3. Plastikozko poltsa batean sartu, eta ondo itxi.
4. Noizean behin astinduz, ongi nahasteko, bi edo hiru astez utzi.
5. Denbora horren ostean, poltsa ireki, eta nahasketa edukiontzi egoki batean jarri.

#### NOLA ERABILI

Ontzia eta lore-konposizioa girotu, eta usaina eman nahi diogun gelan utzi.

## FLOTATZEN DUTEN KANDELAK

### BEHARREZKO MATERIALA ETA EKIPOA

- Bainu termostatikoa
- Termometroa
- Ontzia
- Olio edo desmoldatzeko produktua
- Balantza
- Hauspeakin-ontzia
- Pipeta
- Kandelaren neurrirako egokia den argi-muki edo sokatxoa. Oso estua bada ez da ondo piztuko, eta lodiegia bada kea aterako du.
- Plastikozko edo silikonazko moldeak, oinarria altuera baino zabalagoa dutenak (izotza edo azkenburukoak egiteko moldeak erabil daitezke).

### KOSMETIKOAREN FORMULA

Osagaiak	Kantitatea	Propietateak
Estearina	20 g	Gogortzea, opaku bihurtzea, moldetik ateratzea erraztea eta argizariaren konbustioa hobetzea.
Koloragarria	Behar dena	Kolorea ematea
Soja-argizaria	180 g	Oinarria

Kandelentzako esentzia	usain	gehienez % 5	Usaina
---------------------------	-------	--------------	--------

#### JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK

1. Moldeetan olioa edo desmoldatzeko produktua eman.
2. Estearina, argizaria eta koloratzailea pisatu.
3. Estearina hauspeakin-ontzi batean bota, eta Maria bainutan berotu.
4. Estearina urtzean koloratzailea bota, eta beirazko hagaxka batekin nahastu.
5. 65 °C-tan dagoenean, argizaria nahastu oso poliki, urtu arte. Esentzia gehitu.
6. Atera Maria bainutatik eta, guztiz bete gabe, moldean kontuz bota.

## BAINURAKO OLIOA LARANJA-LOREAREKIN ETA LARROSAREKIN

### BEHARREZKO MATERIALA ETA EKIPOA

- beirazko hagaxkak
- probeta
- ontzia
- pipeta
- hauspeakin-ontzia

### KOSMETIKOAREN FORMULA

Osagaiak	INCI kodea	Kantitatea	Propietateak
Arbendol-olio gozoa	<i>Almond Oil</i>	80 ml	Leuntzailea, hidratatzailea
Arrosaren esentzia-olioa	<i>Rosa centifolia Extract</i>	5 ml	Usaina
Laranja-lorearen esentzia-olioa	<i>Citrus aurantium dulcis Flower Extract</i>	25 g	Usaina eta oinarria

### JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK

1. Formulako osagaiak pisatu.
2. Hauspeakin-ontzian olio botata.
3. Esentzia-olioak (haien artean) hauspeakin-ontzian nahastu, eta, arbendola gozo-olioarekin, gelditu gabe irabiatuz, erabat disolbatu arte ondo nahastu.
4. Ontzi opaketan ontziratatu.
5. Erabili baino lehen, bi astez gorde.

## NOLA ERABILI

36 °C-tan jarri bainuko ura, eta 15 ml olio bota. 15 minutu egon barruan gutxi gorabehera.

## IZPILIKUAREKIN LURRINDUTAKO PAPERA

### BEHARREZKO MATERIALA ETA EKIPOA

- balantza
- koilaratxoa
- ontziak
- katilua
- pipeta
- paperezko poltsa bat
- papera

### KOSMETIKOAREN FORMULA

<b>Osagaiak</b>	<b>INCI kodea</b>	<b>Kantitatea</b>	<b>Propietateak</b>
Lili-sustraiaren hautsa	<i>Iris florentina Root Powder</i>	10 g	Usaina
Izpiliku-lore lehorrak	<i>Lavandula latifolia</i>	50 g	Usaina
Izpilikuaren esentzia-olioa	<i>Lavandula angustifolia Extract</i>	1 ml	Usaina

### JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK

1. Landare lehor bakoitzeko behar den kantitatea pisatu.
2. Izpiliku-loreak katilu batean jarri, lili-sustraiaren hautsa eta esentzia bota, eta koilaratxo batekin nahastu.

3. Paperezko poltsa batean sartu, eta itxi.

#### NOLA ERABILI

Izpiliku-poltsa kaxa batean sartu lurrindu nahi ditugun paperekin batera, eta itxi.  
Gutxienez 2 astez gorde.



**ESKUETAKO KREMA ELIKAGARRIA****BEHARREZKO MATERIALA ETA EKIPOA**

- bainu termostatikoa
- balantza
- probeta
- beirazko hagaxkak
- erloju-beira
- ontzia
- pipeta
- termometroa
- hauspeakin-ontzia
- PH-a neurtzeko papera

**KOSMETIKOAREN FORMULA**

<b>Osagaiak</b>	<b>INCI kodea</b>	<b>Kantitatea</b>	<b>Propietateak</b>
Almendra gozo- olioa	<i>Almond Oil</i>	20 ml	Emolientea, elikatzailea
Hur-olioa	<i>Corylus avellana</i> <i>Nut Oil</i>	20 ml	Emolientea, elikatzailea
Arrosa-ura	<i>Rosa Centifolia</i> <i>Water</i>	15 ml	Azalaren babeslea
Erle-argizaria	<i>Beeswax</i>	8 g	Emultsionatzailea

Arrosaren esentzia-olioa	<i>Rosa centifolia Extract</i>	Il tanta	Usaina
Tokoferola	<i>Tocopherol</i>	0,1 ml	Oxidazioaren aurkakoa

### JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK

1. Osagaiak neurtu, eta pisatu.
2. Argizaria hauspeakin-ontzi batean bota, Maria bainutan 50-60 °C inguruan urtu, eta olioak, beirazko hagaxka batekin irabiatuz, oso astiro nahastu.
3. Arrosa-ura olioaren tenperatura berean egon dadin, beste hauspeakin-ontzi batean berotu.
4. Bi ontziak bainutik atera, eta oso poliki fase urtsua fase oliotsuaren gainean bota. Nahasketa hoztu, eta bi faseek bat egin arte, astiro baina gelditu gabe nahastu.
5. PH-a neurtu eta, beharrezkoa izango balitz, 5 eta 6-en artean egon arte doitu.
6. Ontzian sartu, eta etiketa jarri.

### NOLA ERABILI

Esku garbi eta lehorretan eman, masaje batekin.

## ESKUETARAKO KREMA HIDRATATZAILEA, LARANJA-LOREAREKIN ETA IZPILIKUAREKIN

### BEHARREZKO MATERIALA ETA EKIPOA

- balantza
- bainu termostatikoa
- espatula
- beirazko hagaxkak
- erloju-beira
- ontzia
- pipetak
- termometroa
- hauspeakin-ontziak
- PH-a neurtzeko papera

### KOSMETIKOAREN FORMULA

Osagaiak	INCI kodea	Kantitatea	Propietateak
Almendra gozo- olioa	<i>Almond Oil</i>	150 ml	Emolientea, elikatzailea
Lanolina	<i>Lanolin</i>	40 ml	Emolientea, emultsionatzailea
Erle-argizaria	<i>Beeswax</i>	100 g	Emultsionatzailea
Izpiliku finaren esentzia-olioa	<i>Lavandula angustifolia Extract</i>	0,5 ml	Antiseptikoa, usaina

Laranja-lorearen esentzia	<i>Citrus aurantium dulcis Flower Extract</i>	0.5 ml	Tonikoa, usaina
Erromero lehorra	<i>Rosmarinus officinalis Extract</i>	0.5 ml	Astringentea, usaina
Destilatutako ura	<i>Aqua</i>	50 ml	Disolbatzailea
Tokoferola	<i>Tocopherol</i>	0,1 ml	Oxidazioaren aurkakoa

#### JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK

1. Formulako osagaiak neurtu, eta pisatu.
2. Hauspeakin-ontzi batean argizaria jarri, eta 50-60 °C-tan urtu, lanolina gehitu eta, gero, oso mantso nahastuz, olioak bota.
3. Beste hauspeakin-ontzi batean, destilatutako ura bota, eta olioaren eta argizarien tenperatura bera eduki dezan, Maria bainutan berotu.
4. Ontziak atera, eta fase urtsua fase oliotsuaren gainean bota, nahasten hoztu arte.
5. Tokoferola eta esentzia-olioak nahastu.
6. PH-a neurtu, eta, beharko balu, doitu.
7. Ontzian sartu, eta etiketatu.

#### NOLA ERABILI

Eskuak garbitu eta lehortu ondoren, ondo igurtzi krema-kantitate txiki bat, masajetxo batekin.

## OLIBA OLIO-XABOIA

### BEHARREZKO MATERIALA ETA EKIPOA

- bainu termostatikoa
- balantza
- espatulak
- hauspeakin-ontziak
- Pyrex® ontziak
- termometroa
- irabiagailua
- silikonazko koilara
- metalezkoak ez diren moldeak
- paper osmotikoa

### KOSMETIKOAREN FORMULA

Osagaiak	INCI kodea	Kantitatea	Propietateak
Oliba-olioa	<i>Olea Oil</i>	300 g	Emolientea, hidratatzailea
Koko-olioa	<i>Cocos nucifera Oil</i>	200 g	Emolientea, apar-egilea
Sodio hidroxido-perlatxoak	<i>Sodium hydroxide</i>	75,8 g	Alkalinizatzailea
Izpiliku finaren esentzia-olioa	<i>Lavandula angustifolia Extract</i>	7,5 g	Antiseptikoa, usaina
Ur destilatua	<i>Aqua</i>	167 g	Disolbatzailea

<b>Moldea igurzteko</b>			
Baselina likidoa	<i>Paraffinum Liquidum</i>	Behar dena	Xaboa hobeto ateratzea

#### JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK

1. Formulako osagai guztiak pisatu (ez da bolumena neurtu behar).
2. Beroarekiko jarkikorra den ontzi batean ura bota, eta soda gehitu oso poliki, lurrun arriskutsuak botako dituela kontuan hartuz. Ez ahaztu erabili behar diren mantala, eskularruak eta segurtasun-betaurrekoak.
3. Irabiagailu edo koilara batekin oso azkar nahastu.
4. Hauspeakin-ontzi batean olioak jarri, eta Maria bainutan 50 °C arte berotu.
5. Olioak 50 °C-tan, eta soda eta ur-nahasketa 60 °C-tan daudenean, olio nahasketaren ganean kontu handiz bota; berriro ere oso azkar irabiatu. Burbuilak eta aparra ekiditen saiatu.
6. Saponifikazioa gertatzen den bitartean, tarteka astindu. Nahasketa loditzen hasten denean, izpilikuaren esentzia-olioa nahastu.
7. Moldea baselinaz igurtzi edo paper osmotikoarekin estali. Bertan xaboa bota, eta 24 orduz hozten eta solidotzen utzi.
8. Xaboa moldetik atera, eta, behar bada, zatitu eta nahi duzun forma eman.
9. Neutraliza dadin eta xaboiaren pH-a 7-8 artean egon dadin, gutxienez 2 hilabetez gorde.
10. Bildu, eta etiketatu.

#### NOLA ERABILI

Gorputza eta aurpegia garbitzeko erabili xaboa, eta masajetxoak eginez urarekin garbitu.

#### KONTUAN HARTU BEHARREKOA

Sodio hidroxidoa erabiltzerakoan segurtasun-betaurrekoak, eskularruak eta mantala erabili beti.

## AZAL KOIPEDUNERAKO XABOI IDORGARRIA

### BEHARREZKO MATERIALA ETA EKIPOA

- bainu termostatikoa
- balantza
- espatulak
- probetak
- beirazko hagaxkak
- erloju-beira
- pipetak
- moldea
- termometroa
- hauspeakin-ontziak

### KOSMETIKOAREN FORMULA

Osagaiak	INCI kodea	Kantitatea	Propietateak
Glizerina-xaboia		100 g	Garbigarria
Limoiaresentzia-olioa	<i>Citrus medica limonum Leaf Oil</i>	II tanta	Usaina
Laranja-lorearesentzia-olioa	<i>Citrus aurantium dulcis Flower Extract</i>	II tanta	Tonikoa, usaina
Jjoba-olioa	<i>Simmondsia chinensis Oil</i>	2 ml	Emolientea, hidratatzailea
Moldea igurtzeko			

Baselina likidoa	<i>Paraffinum liquidum</i>	Behar dena	Xaboa hobeto ateratzea
------------------	----------------------------	------------	------------------------

#### JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK

1. Aukeratutako moldea baselinaz igurtzi.
2. Formulako osagaiak pisatu edo neurtu.
3. Glizerina-xaboa zati txikietan zatitu, eta Maria bainutan 55-60 °C-tan hauspeakin-ontzian urtu.
4. Urtuta dagoenean, sutatik atera, eta *jojoba*-olioa eta esentzia-olioak gehitu.
5. Aparra eta burbuilak saihesteko, nahasketa-moldean oso poliki bota.
6. Hozten eta solidotzen utzi.
7. Xaboa moldetik atera, eta 24 orduz utzi.
8. Bildu, eta etiketatu.

#### NOLA ERABILI

Aurpegia eta gorputza garbitzeko erabili, eta, masajea eginez, urarekin garbitu.



## EZPAINAK OSATZEKO OLIOA

### BEHARREZKO MATERIALA ETA EKIPOA

- beirazko hagaxka
- ontzia
- pipeta
- hauspeakin-ontzia
- PH-a neurtzeko papera
- bainu termostatikoa
- termometroa

### KOSMETIKOAREN FORMULA

Osagaiak	INCI kodea	Kantitatea	Propietateak
Lanolina	<i>Lanolin</i>	45 ml	Emolientea, emulsionatzailea.
Izpiliku finaren esentzia-olioa	<i>Lavandula angustifolia Oil</i>	5 ml	Emolientea, antiseptikoa.
Musketa arrosa- olioa	<i>Rosa moschata Oil</i>	5 ml	Emolientea, epitelizatzailea.
Tokoferola	<i>Tocopherol</i>	0,1 ml	Antioxidatzailea.

### JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK

1. Formulako osagaiak neurtu.

2. Lanolina hauspeakin-ontzian jarri, esentzia-olioak gehitu, eta beirazko hagaxkarekin irabiatu, nahasketa homogenea lortu arte. Beharrezkoa bada, Maria bainutan berotu 40 °C-tan. Berotzen ari den bitartean, irabiatu.
3. Tokoferola gehitu, eta nahastu.
4. Egokiak diren jakiteko, ezaugarri organoleptikoei begiratu.
5. Ontzi opaku batean sartu, eta etiketatu.

#### NOLA ERABILI

Olio pixka bat eman ezpainetan, behar izanez gero.

## BEGI-INGURURAKO OLIOA

### BEHARREZKO MATERIALA ETA EKIPOA

- beirazko hagaxkak
- hauspeakin-ontziak
- pipetak
- ontzia
- PH-a neurtzeko papera
- bainu termostatikoa
- termometroa
- probetak

### KOSMETIKOAREN FORMULA

Osagaiak	INCI kodea	Kantitatea	Propietateak
Almendra gozo-olioa	<i>Almond Oil</i>	20 ml	Emolientea, hidratatzailea.
Soja-olioa	<i>Glycine Soja Oil</i>	20 ml	Emolientea, azala gazte mantentzeko egokia.
Errizino-olioa	<i>Ricinus communis oil</i>	10 ml	Emolientea, hidratatzailea.
Tokoferola	<i>Tocopherol</i>	0,1 ml	Antioxidatzailea

### JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK

1. Formulako osagaiak neurtu.

2. Olioak hauspeakin-ontzi batean jarri, eta nahasketa homogenea lortu arte, beirazko hagaxkarekin irabiatu. Beharrezkoa bada, Maria bainutan berotu 40 °C-tan. Berotzen ari den bitartean, irabiatu.
3. Tokoferola gehitu, eta nahastu.
4. Egokiak diren jakiteko, ezaugarri organoleptikoei begiratu.
5. Ontzi opaku batean sartu, eta etiketatu.

## NOLA ERABILI

Tanta bat edo bi jarri hatzetan, eta masajetxo arin bat eman begien inguruan eta betazaletan.

## GORPUTZEKO ESFOLIATZAILEA GATZA ETA MARRUBIEKIN

### BEHARREZKO MATERIALA ETA EKIPOA

- beirazko hagaxkak
- motrailua
- kristalizadorea
- ontzia
- erloju-beira
- balantza
- termometroa
- espatulak

### KOSMETIKOAREN FORMULA

Osagaiak	INCI kodea	Kantitatea	Propietateak
Itsasoko gatz lodia	<i>Sodium Chloride</i>	150 g	Oinarria, esfoliatzaile fisikoa
Limoia-aren esentzia-olioa	<i>Citrus medica limonum Leaf Oil</i>	X tanta	Usaina
Almendra gozo- olioa	<i>Almond Oil</i>	Gatza bustitzeko adina	Emolientea, hidratatzailea
Heldutako marrubiak		10	Keratolitikoa
Tokoferola	<i>Tocopherol</i>	0,1 ml	Antioxidatzailea

## JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK

1. Marrubiak motrailuan jarri, eta prentsatu.
2. Gatza pisatu, eta motrailura bota.
3. Olio gehitu, gatz guztia ondo busti arte, eta ondo nahastu.
4. Esentzia-olioa bota, eta nahastu.
5. Beirazko ontzi batean sartu, eta etiketatu.
6. Astebete iraungo du gehienez egoera onean, betiere hozkailuan gordetzen bada.

## NOLA ERABILI

Lau edo bost minututako masajetxo bat eman esfoliatzailearekin, eta ur epelarekin garbitu.

Kosmetikoa egin eta gero, alderdi asko azertu behar ditugu haren kalitatea ezagutzeko. Besteak beste, ezaugarri organoleptikoak, ezaugarri fisiko-kimikoak, propietateak, sortu ditzakeen erreakzio kaltegarriak, pisua, etiketaren zuzentasuna eta abar.

### A) EZAUGARRI ORGANOLEPTIKOAK

Usaina, kolorea, ehundura eta itxura behatu.

- Kolore-konparazioa edo kolorimetria erabiliz aztertzen da. Adibidez, emulsiokoak zuriak edo horixkak izaten dira osagaien arabera; gelak, aldiz, gardenak.
- Usaina atsegina eta jarri zaion esentzia-olioaren araberakoa dela begiratu aztertzen da
- Ehundura produktua ukituz aztertzen da. Tenperaturak eta sorrarazten dituen sentrazioek atseginak izan behar dute.

### B) EZAUGARRI FISIKO-KIMIKOAK

- Likatasuna eta loditasuna. Produktua likidoa, gela, pasta edo solidoa den azertu.
- PH-a neurtu, eta parametro egokien artean dagoela bermatu.
- Gela edo xanpuaren kasuan, aparraren iraunkortasuna neurtu.
- Emulsioren eta gelen kasuan, begiratu iheskortasuna edo kosmetikoa eman eta gero azalaren gainean zenbat produktu gelditzen den. Sobera gutxi geratzen bada, produktuak iheskortasun handia du.
- Azalean zabaltzeko gaitasuna. Emulsioren eta gelen hedapena azalean presioa ematean zein den azertu.
- Sedimentazio-denbora suspentsioen kasuan azertu behar da; zenbat denbora dauden partikulak likidoan eta ez, ontziaren behealdean.
- Homogeneotasuna. Begiak eta mikroskopioa erabiliz, fase bat edo gehiago dituen azertu.

### C) PISUA KONTROLATZEA

Kosmetikoaren pisu netoa bermatu, formulazioa eta neurketarako erabili den ekipoa kontuan hartuz.

### D) NARRITADURA-PROBAK

Begietan eta azalean narritadurarik sorrarazten duen probatu.

### E) ETIKETA

Legeak dioen informazio guztia azaltzen dela bermatu.

### F) KONTSUMITZAILEEI TESTAK EGITEAN

Testak eta kosmetikoak banatu pertsona batzuen artean haien iritzia eta asetasun-maila ezagutzeko.

## 2.5.PERFUMEEKIN EGITEKO PRAKTIKA: USAINZEN IKASTEA

Musika klasikoa entzuten dugu entzumena hezteko, museoetara joaten gara ikusmena lantzeko, jaki bereziak probatzen ditugu dastamena hobetzeko, baina ez dugu usaimena hezten. Usaintzen ikasi behar dugu bezero batek ezaugarri konkretu batzuk dituen perfumea eskatzen digunean, egokia dena eskaintzeko gai izateko. Horretarako, perfumeen konplexutasuna baloratzen, familietan sailkatzeko gai izaten, eta bat beste guztien artean aukeratzen jakin behar dugu. Gainera, usainen oroimena gordetzen ikasi behar dugu, abesti bat edo koadro bat gogoratzen ditugun moduan.

Perfumeekin praktikatzen hasteko, usainik gabeko gela bat lortu behar dugu, ahal bada, hezea eta beroa.

Garrantzitsua da perfumeekin lan egiteko bakarrik erabiliko den koaderno bat edukitzea. Bertan, perfume bakoitzak ekarritako oroitzapen, irudi mental eta sentsazio guztiak idatziko ditugu, eta behar dugunean kontsultatu dezakegu.



Hasteko, bi paper-zati moztuko ditugu, eta bertan datu batzuk idatziko ditugu:

- perfumearen izena (bietan bera)
- data eta ordua (bete gabe)
- zenbaki bat paper bakoitzean (1 eta 2)

Gero, lurrina botako dugu 1 zenbakia duen papertxoan, zenbakia dagoen atzeko aldean, papera astinduko dugu airean eta askatzen duen usaina usainduko dugu. Koadernoan idatziko dugu bururatzen zaigun guztia: adjektiboak, izenak, dena, ez dena, izan litekeena... Hori izango da perfumearen hasierako noten lehen irudia.

Denbora-tarte bat pasatu ondoren (15 minutu inguru), berriro usainduko dugu paper-zatia, eta paperean apuntatuko dugu sentitutakoa eta usaindutakoa. Hori izango da perfumearen bihotzeko noten lehen irudia.

Horren ostean, bigarren paper-zatia lurrinduko dugu, ordua apuntatuko dugu, eta gure sententzioak idatzi. Bi paper-zatiak konparatuko ditugu, usainaren eboluzioa aztertzeko. Gure koadernoan ñabardurak azalduko ditugu. 1 zenbakia duen paperean momentu honetan bihotzeko notak usaindu ditzakegu; 2 zenbakia duen paper-zatian, berriz, hasierako notak.

Ordu erdi igaro ostean jarraituko dugu, eta 1 zenbakia duen papera usainduko dugu, hondoko notek irteteko zenbat denbora behar duten ikusi, nolakoak diren apuntatu, eta noiz desagertzen diren jakiteko.

Lan egiteko modu hori erabil daiteke esentzia-olioekin, absolutuekin eta tinturekin. Ez da gomendatzen lurrin askorekin lan egitea aldi berean; gehienez hiru perfumerekin egingo dugu.

Gure usaimena lantzen ari garenean, *nekatu* egin daiteke, eta, momentu batean, usaintzeko gaitasuna galtzen dugu. Momentu horretan, hoberena deskantsatzea da, ordu batzuk pasatzen uztea. Hala ere, badira lan-saioak luzatzeko moduak: kafe-aleak usaintzea, gatz pixka bat mingainean jartzea edo artilezko mataza bat usaintzea, adibidez.

## ARIKETAK

1. Egin ezazu taula bat.
  - 1.1. Bete itzazu zutabetan jarraian adierazita dauden esentzia-olio hauen datuak: esentzia-olioaren izena, INCI kodea, landarearen irudia, propietateak.
    - a. izpiliku fina
    - b. te arbola
    - c. laranja gozo-lorea
  - 1.2. Gehitu itzazu zuk aukeratutako bost esentzia-olioren datuak
2. Adierazi perfume gintzan erabiltzen diren alkoholean disolbatutako esentzia-kontzentrazioak. Zer izen ematen zaio bakoitzari?
3. Zer ur-kantitate dauka 70 °-ko alkoholak?
4. Azaldu nola pisatzen den solido bat eta nola neurtzen den likido bat, bolumena neurtzeko tresnak erabiliz.
5. Zer da destilazioa? Egin eskema bat.
6. Kalkulatu 5 g solutu eta 95 g disolbatzailez osatutako disoluzio baten dentsitatearen ehunekoa (% m/v).
7. Proposatu perfume baten eta kosmetiko natural baten formula bana.
8. Egin ezazu erabiltzaileen kosmetikoekiko asetasun-maila neurtzeko test bat.
9. Zer segurtasun-neurriri jarraitu behar diegu soda kaustikoa duen xaboi bat egitean?
10. Esan zer lurrin-motak duen konposizio hau: % 20ko esentzia-olioa, % 80° eta %90 ° bitarteko kontzentrazioa duen alkohola eta finkatzailea.

## Bibliografia

*Molinero, I.A., Escribano, E., Guillén, M.. Perfumeria y cosmética natural.* 2015. Ed. Videocinco.

[www.osalan.euskadi.eus/segurtasun](http://www.osalan.euskadi.eus/segurtasun)

Irudiak: “ CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Eusko Jaurlaritzza/Mikel Arrazola”